



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

EBAZPENA

ARRASATEKO AUTOESKOLAK

Espedientea: 224-ZEH-2017 LEA/AVC espedientea

Aurkibidea:

I. AURREKARIAK.....	2
II. ENPRESEN DESKRIBAPENA.....	6
A. Arrasate	7
B. Leniz	7
C. Peñakoba	7
D. Telleria.....	8
III. ERAGINPEKO MERKATUAREN AZTERKETA	8
1. Jokabideek eragindako merkatuaren deskribapena.....	8
A. Zerbitzua desberdintzeko faktoreak	8
B. Tarifaren osagaiak	9
2. Arrasateko autoeskolen eta beste merkatu geografiko batzuetako autoeskolen azterketa alderatua	9
A. Eskari efektiboa	9
B. Eskari potentziala	11
C. Prezioak.....	12
D. Kostuak.....	13
3. Arrasateko autoeskolen merkatua.....	15
A. B motako gidabaimenaren prezioak	15
B. Merkatu-kuotak eta kontzentrazio-maila	17
C. Autoeskolen gastuen egitura	18
D. Eskariaren elastikotasuna.....	20
E. Informazioaren teknologien erabilera.....	20
4. Ondorioak.....	20
IV. EGITATE FROGATUAK	22
1. Merkatu adierazgarria	22
2. Tarifak	23
3. Gastuen egitura.....	28
4. Gaindituen kopurua.....	29
V. AUTOESKOLEN ALEGAZIOAK	30
1. Prezioak lehiari egokitzea	30
2. Merkatuaren gardentasuna	31



3. Jokabidearen ondoreak.....	32
4. Aurreko jabearen tarifei eustea.	35
5. Autoeskolen ezaugarri desberdinak	35
6. Gomendio kolektiboa	36
VI. ZUZENBIDEKO OINARRIAK.....	36
1. Ebazteko eskumena.....	36
2. Egitateak kalifikatzea	37
3. Tipikotasuna.....	38
4. Presuntzio-froga.....	41
5. Antijuridikotasuna.....	43
6. Arau-haustearen larria.....	43
VII. INGURUABAR LARRIGARRIAK ETA ARINGARRIAK	44
VIII. ERANTZUKIZUNA.....	44
IX. ZEHAPENAK ZEHAZTEA.....	45
1. Balorazio orokorra.....	47
2. Jokabidearen banakako balorazioa.....	48
3. Enpresa arau-hausleei ezarri beharreko zehapen-tasa.	49
4. Zehapenak	49
X. LEHIAREN EUSKAL KONTSEILUAREN EBAZPENA.....	50

Osoko bilkura:

Alba Urresola Clavero andrea, presidentea

Rafael Iturriaga Nieva jauna, kidea

Enara Venturini Álvarez andrea, kidea

Lourdes Muñoa Corrales andrea, idazkaria

Lehiaren Euskal Kontseiluak (hemendik aurrera, LEK), 2018ko irailaren 25eko bilkuran, goian adierazitakoek parte hartuta, ebazpen hau eman du 224-ZEH-2017 ARRASATEKO AUTOESKOLEN espedienteari buruz:

I. AURREKARIAK

1. 2017ko apirilaren 3an, Ikerketako zuzendariak, Arrasateko lau autoeskolek B motako gidabaimena lortzeko ezartzen zituzten prezioak bat zetoze edo antzekoak zirela egiaztatu ostean, uztailaren 3ko Lehia Defendatzeko 15/2007 Legearen 49.1 artikuluan xedatutakoa betez, autoeskolei zehapen-espedientea irekitzea erabaki zuen (5. orrialdetik 7.era). Honako hauek ziren autoeskolak:

ROBERTO LARRAD PÉREZ (aurrerantzean, ARRASATE)



JOKIN ITURRIOTZ GASTESI (aurrerantzean, LENIZ)

PEÑAKOBA AUTOESKOLA SL (aurrerantzean, PEÑAKOBA)

ION TELLERIA GARAY (aurrerantzean, TELLERIA)

Ebazpen horrek prozeduran interesa zuen alderdi gisa izendatu zuen Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalako (MLBN) Lehia Zuzendaritza.

2. 2017ko apirilaren 10ean, informazioa emateko probidentzia-eskaera helarazi zitzaion Gipuzkoako Trafikoko Zuzendaritza Nagusiari. Zehazki, honako informazio hau eskatu zitzaion: Arrasateko autoeskolen eta/edo egoitzen zerrenda; Arrasateko autoeskoletan eta/edo egoitza bakoitzean B zirkulazio-proba gainditu dutenen kopurua 2013-2017 aldian; Arrasateko autoeskoletan zirkulazio-proba gainditu dutenak bizi diren herria (24. orrialdea).

Eskaera horri emandako erantzuna 2017ko maiatzaren 8an sartu zen LEAren erregistroan (28.etik 61.era arteko orrialdeak).

3. 2017ko maiatzaren 15ean, espedienteetarako sarbidea izateko LENIZ eta PEÑAKOBA autoeskolen eskaera jaso zuen LEAk (63. orrialdetik 67.era). Biek espedienterako sarbidea izan zuten 2017ko maiatzaren 19an LEAren egoitzan, eta eskatu zituzten folioen kopiak entregatu zitzaizkien. Horren guztiaren akta egin zen (72. eta 73. orrialdeak).

4. 2017ko uztailaren 5ean, informazioa emateko beste probidentzia-eskaera bat helarazi zitzaion Gipuzkoako Trafikoko Zuzendaritza Nagusiari. aurreko errekerimenduan bidalitako informazioa osatzeko, honako informazio hau eskatuz: autoeskola eta/edo egoitza bakoitzean B zirkulazio-proba gainditu dutenen kopurua baimen motaren (A, B, C, etab.) eta urtearen (2013, 2014, 2015, 2016 eta 2017) arabera banakatuta (80. orrialdea).

Errekerimenduaren erantzuna 2017ko abuztuaren 9an sartu zen LEAren erregistroan (98. eta 99. orrialdeak).

5. 2017ko uztailaren 11n informazio emateko probidentzia-eskaera bidali zitzaion espediente ireki zitzaion autoeskoletako bati (111. eta 107. arteko orrialdeak), honako informazio hau eskatuz: sozietatearen izena; izen komertziala; titularra; jardueraren hasiera-data; egoitza-kopurua eta helbidea; titulartasun-aldaketak; zein baimen ateratzeko ematen duten prestakuntza; fakturazio osoaren bolumena 2013tik 2017ra bitartean; B gidabaimenaren fakturazio-bolumena 2013 eta 2017 urte bitartean; B gidabaimenaren prezioa 2013 eta 2017 urte bitartean; sustapenak edo deskontuak 2013 eta 2017 urte bitartean; B motako gidabaimena atera zuten ikasleek emandako eskola



praktikoen batez besteko kopurua; prezioa kalkulatzeko erabilitako irizpideak; gastuen egitura; langileen laneko araubidea eta hitzarmena; ikasle-kopuruaren bilakaera 2013 eta 2017 urte bitartean; eta bezeroei entregatzen zizkieten aurrekontuen kopia urteka, 2013tik 2017ra bitartean (82.etik 86.era arteko orrialdeak).

Errekerimenduaren erantzuna 2017ko irailaren 11ren eta 13aren artean sartu zen LEAren erregistroan (100.etik eta 155.era arteko orrialdeak eta 161.etik eta 165.era arteko orrialdeak).

6. 2017ko urriaren 31n informazioa zuzentzeko probidentzia-eskaera bidali zitzaien PEÑAKOBA eta LENIZ autoeskolei (166. eta 167. orrialdeak). Eskaera horien erantzunak 2017ko azaroaren 13an eta azaroaren 20an sartu ziren LEAren erregistroan (178.etik 184.era arteko orrialdeak).

7. 2017ko azaroaren 9an Trafikoko Zuzendaritza Nagusiari eskatutako dokumentazioaren zuzenketa sartu zen LEAren erregistroan (173.etik eta 177.era arteko orrialdeak).

8. 2017ko abenduaren 19an informazioa emateko probidentzia-eskaera bidali zitzaien ARRASATE, LENIZ, PEÑAKOBA eta TELLERIA autoeskolei. Zehazki B baimena lortzeko ikasleei 2013 eta 2017 urte bitartean jaulkitako faktura guztien kopia, hala balegokio, kasu honetan Arrasateko egoitzakoak (185. eta 186. orrialdeak).

Erantzunak 2018ko urtarrilaren 3an eta 2018ko urtarrilaren 15ean sartu ziren LEAren erregistroan (199.etik 1.634.era arteko orrialdeak).

9. 2018ko urtarrilaren 17an eginbide bat gauzatu zen. Horren bidez, jasota geratu zen Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoaren 3.a) artikulua aipatzen dituen datuak kenduko zirela espedientera gehitu diren autoeskolek jaulkitako fakturen kopietatik (izenak eta abizenak, NAN zenbakia eta helbidea) (1.635. orrialdea).

10. 2018ko urtarrilaren 25ean eginbide bat gauzatu zen. Horren bidez, jasota geratu zen honako informazio hau gehitu zela espedientera: 2016ko azaroaren 2an Iruneneko autoeskolek entregatutako B motako gidabaimena eskuratzeko aurrekontuak; 2016ko azaroaren 6an Beasaingo autoeskolek entregatutako B motako gidabaimena eskuratzeko aurrekontuak; eta Errenteriako autoeskolek entregatutako B motako gidabaimena eskuratzeko aurrekontuak. Dokumentazio hori LEAren 217-ZEH-2017 espedientean aurkitzen da (10.etik 15.era arteko orrialdeak eta 610. orrialdea).



11. 2018ko urtarrilaren 26an, espedientearen instruktoreak zegokion egitateak zehazteko baldintzen agiria idatzi zuen, Lehia Defendatzeko Legearen 50.3 artikuluan ezarritakoaren arabera (1.658 etik 1.674.era arteko orrialdeak). Baldintzen agiri horretan jasotakoaren arabera, jarraian zehaztutako autoeskolek Lehiaren Defentsarako Legearen 1. artikulua urratu dute:

ROBERTO LARRAD PÉREZ (IFZ 16292438C), izen komertziala Arrasate Autoeskola

JOKIN ITURRIOTZ GASTESI (IFZ 15906454E), izen komertziala Leniz Autoeskola

PEÑAKOBA AUTOESKOLA, S.L. (IFZ B20807814), izen komertziala Peñakoba Autoeskola

ION TELLERIA GARAY (IFZ 15385478L), izen komertziala Telleria Autoeskola

12. Baldintzen agiri hori behar bezala jakinarazi zitzaien interesdunei –2018ko urtarrilaren 31n LENIZ, PEÑAKOBA eta TELLERIA autoeskolei, eta 2018ko otsailaren 1ean ARRASATE autoeskolari (1.756.era 1.760.era arteko orrialdeak)–. Hamabost egun balioduneko epea eman zitzaien baldintzen agiriari zein Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari erantzuteko eta, hala nahi izanez gero, egoki iritzitako frogak proposatzeko.

Interesdunek 2018ko otsailaren 9an eta 20an aurkeztu zituzten alegazioak. (1.761.etik 1.772.era arteko orrialdeak). LENIZ eta PEÑAKOBA autoeskolek Gipuzkoako Trafiko Buruzagitzari, Arrasaten dauden autoeskolen kopuruari buruzko froga gauzatzeko eskatu zioten, euren helbideak eta egoitza kopuruak adierazita.

13. 2018ko martxoaren 13an eskatutako frogak gauzapeña ezesteko probidentzia bidali zitzaien. Frogak gauzatzea ez zen beharrezkotzat jo, eskatzen zen informazioa espedientearen jasota baitzegoen dagoeneko (1.773.etik 1.775.era arteko orrialdeak).

14. 2018ko apirilaren 11n, informazioa emateko probidentzia-eskaera bidali zitzaien lau autoeskolei. Zehazki, honako informazio hau eskatu zitzaien: 2017ko negozio-bolumen osoaren kopurua, B gidabaimenari zegokion 2017ko negozio-bolumen kopurua, 2017. urteko ikasle guztien kopurua eta B gidabaimena 2017an eskuratu zuten ikasleen kopurua (1.787.etik 1.797.era arteko orrialdeak).

Erantzunak 2018ko apirilaren 18 eta 27 bitartean sartu ziren LEAren erregistroan (1.798.etik 1.808.era arteko orrialdeak).

2018ko apirilaren 28an PEÑAKOBA autoeskolak bidalitako informaziotik datu pertsonalak kentzeko eginbidea gauzatu zen (1.809. orrialdea).



15. 2018ko maiatzaren 2an, espedientearen instruktoreak instrukzioaren fasea ixteko probidentzia agindu zuen, ebazpen-proposamena idazteko asmoz, Lehia Defendatzeko Erregelamenduaren 33. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz (1.810.etik 1.811.era arteko orrialdeak).

Probidentzia hori behar bezala jakinarazi zitzaien interesdunei (1812.etik 1825.era arteko orrialdeak).

16. 2018ko maiatzaren 31n espedientearen instruktoreak ebazpen-proposamena agindu zuen, LEKri proposatuz Arrasateko autoeskolak zehatzeko, B motako gidabaimena eskuratzeko irakaskuntzan bat datozen tarifak eskaintzeagatik (1.832.etik 1.882.era arteko orrialdeak).

17. Ebazpen-proposamen hori interesdunei jakinarazi zitzaien –2018ko ekainaren 1ean Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari eta 2018ko ekainaren 4an ARRASATE, PEÑAKOBA, LENIZ eta TELLERIA autoeskolei–. 15 eguneko epea eman zien egoki iritzitako alegazioak aurkezteko, probak gauzatzea eta jarduera gehigarriak eskatzeko, Lehia Defendatzeko Legearen 50.4 artikuluan xedatutakoa betez (1.883.etik 1.892.era arteko orrialdeak).

2018ko ekainaren 22an (2018ko ekainaren 21ean posta-bulego batean aurkeztu ondoren), TELLERIA autoeskolak ebazpen-proposamenari egindako alegazioak sartu ziren (1.893. eta 1.894. orrialdeak).

18. 2018ko uztailaren 3an, Ikerketa Zuzendaritzak (IZ) administrazio-espedientea igorri zion LEKri, ebazpen-proposamenarekin eta TELLERIA autoeskolak aurkeztutako alegazioak aztertzen zituen txostenarekin batera. Aipatutako alegazioak ikusita, instruktorearen ustez, alegazioak ez dute ebazpen-proposamenean adierazitakoa indargabetzen (1.895. eta 1.896. orrialdeak).

II. ENPRESEN DESKRIBAPENA

19. Gidarien eskola partikularrak, autoeskolak deitu ohi direnak, Gidarien Erregelamendu Orokorrean ezartzen diren baimenen bat eskuratu nahi dutenei zirkulazioaren segurtasunerako funtsezkoak diren ezagutza, gaitasun, trebetasun edo jokabideen ikasketa modu profesionalean irakasteko ahalmena duten ikasketa-zentroak dira. Ikasleak aurrez baimena emanaz gero, zentro



ofizialetan gidabaimenekin zerikusia duten dokumentuak ere bideratu ditzakete¹.

Autoeskola bakoitzak, egoitzak eduki zein ez, unitate bat osatzen du. Egoitza deitzen zaie titulartasun eta izen berbera duten eskola nagusiaren sukurtsalei.

A. Arrasate

ROBERTO LARRAD PÉREZ (IFZ 16292438C), izen komertziala ARRASATE AUTOESKOLA du, eta jarduera 2013ko martxoan hasi zuen, autoeskola erosi zuen datan hain zuzen. Bere helbidea Otalora kalea 29 (PK: 20500), Arrasate da. Ez du egoitzarik Espedientean jaso den informazioaren eta Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak eta autoeskolak berak emandako informazioaren arabera, ARRASATE autoeskolak eskaintzen duen prestakuntza B gidabaimena lortzeko prestakuntza da (100.etik 114.era arteko orrialdeak eta 173.etik 177.era arteko orrialdeak).

B. Leniz

JOKIN ITURRIOTZ GASTESI (IFZ: 15906454E), izen komertziala LENIZ AUTOESKOLA du, eta jarduera 1992ko urtarrilaren 1ean hasi zuen. Bere helbidea Aldai kalea 9 (PK: 20500), Arrasate da. Ez du egoitzarik Espedientean jaso den informazioaren eta Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak eta autoeskolak berak emandako informazioaren arabera, LENIZ autoeskolak eskaintzen duen prestakuntza AM, A1, A2, B, EB, B96, C, EC eta D gidabaimenak lortzeko prestakuntza da (117.etik 123.era arteko orrialdeak eta 173.etik 177.era arteko orrialdeak).

C. Peñakoba

PEÑAKOBA AUTOESKOLA, SL. (IFZ: B20807814), izen komertziala PEÑAKOBA AUTOESKOLA du, eta jarduera 2003ko ekainean hasi zuen. Helbidea Zurugalde kalea 46, beheko solairua (PK: 20500), Arrasate du eta egoitza bat du Oñatin, Lizaur kaleko 7. zenbakian (PK: 20560). Espedientean jaso den informazioaren eta Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak eta autoeskolak berak emandako informazioaren arabera, PEÑAKOBA autoeskolak eskaintzen duen prestakuntza A1, A2, B, C, EB, EC eta B96 gidabaimenak lortzeko

¹ Urriaren 17ko 1295/2003 Errege Dekretua, Ibilgailu Motordunen Gidari Eskola Partikularrak Arautzen dituen Erregelamendua onesten duena (2003ko urriaren 28ko BOE, 258. zk.). Martxoaren 26ko 369/2010 Errege Dekretuaren bidez, BOE-A-2010-5038 eta 2006ko abenduaren 15eko auzitegi Gorenaren Epaiaren bidez aldatzen da (BOE-A-2007-2116). Okerrak zuzentzea BOE-A-2003-23188.



prestakuntza da (125.etik 155.era arteko orrialdeak eta 173.etik 177.era arteko orrialdeak).

Espediente honen ondoreetarako, Peñakoba autoeskolaren egozpena Arrasaten dagoen prestakuntza-eskolan irakatsitakoarekin lotutako jokabideei dagokio bakarrik.

D. Telleria

ION TELLERIA GARAY (IFZ: 15385478L), izen komertziala TELLERIA AUTOESKOLA du, eta jarduera 2008ko urtarrilaren 1ean hasi zuen. Bere helbidea Juan Carlos Guerra, 2 Beheko solairua (PK: 20500), Arrasate da. Ez du egoitzarik Espedientearen jaso den informazioaren eta Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak eta autoeskolak berak emandako informazioaren arabera, TELLERIA autoeskolak eskaintzen duen prestakuntza a2 eta B gidabaimenak lortzeko prestakuntza da (161.etik 165.era arteko orrialdeak eta 173.etik 177.era arteko orrialdeak).

III. ERAGINPEKO MERKATUAREN AZTERKETA

1. Jokabideek eragindako merkatuaren deskribapena

A. Zerbitzua desberdintzeko faktoreak

20. Hainbat faktore dago autoeskolek lehiakideengandik desberdintzeko balia ditzaketenak:

- **Prezioa:** lehiakideek baino zerbitzu merkeagoa eskaintzeari desberdintzeko estrategia izan daiteke, baldin eta kontsumitzaileen iritzian zerbitzuaren kalitatean alderik ez badago, are gehiago egoera ekonomikoa bere onenean ez dagoen honetan.
- Eskaintako zerbitzuaren **kalitatea:** irakaskuntzari berari zein ekipo informatikoei edo ibilgailuei dagokiona edota biei dagokiena. Gainera, zerbitzuaren truke ordaintzeko prestasuna, eta, ondorioz, prezioa, kalitateak baldintza dezake.
- **Kokapena:** gertutasun geografikoa ere faktore bereizgarria da, kontsumitzaileek kontuan har dezaketena B motako baimena/lizentzia lortzeko hainbat zerbitzuren artean aukeratzerakoan.
- **Ordutegiaren malgutasuna:** eskola bakoitzak eskaintzen duen zerbitzuaren xede diren bezeroentzako bereziki egokitutako irekiera-ordutegiak eskain ditzake. Hala, ordutegi-malgutasuna gero eta gehiago hartzen dute kontuan kontsumitzaileek zerbitzu jakin bat aukeratzeko garaian. Prestakuntza



teorikoa online, internet bidez, burutzeko edo osatzeko aukera ere sartuko da hemen.

B. Tarifaren osagaiak

21. B. motako gidabaimena lortzeko tarifaren guztizkoa honako kontzeptu hauetan banakatu ohi da:

- **Matrikula eta ikastaro teorikoa:** matrikulatzea eta espedientea izapidetzea, ikastaro teorikoa eta ikasmateriala barne hartzen ditu.
- **Eskola praktikoa:** irakaskuntza praktikoaren guztizko prezioa ikasleak azterketara aurkezteko behar duen eskola kopuruaren arabera da. Eskola-orduen iraupena autoeskola batetik bestera aldatzen da (Arrasateko autoeskoletan 50 eta 60 minutu artean irauten dute).
- **Azterketa praktikoa:** oro har, eskola praktikoaren prezio berdina dute. Dena den, Arrasateko autoeskoletan prezioa 72,55 eurokoa da, klase praktikoarena baino prezio handiagoa (44,5 €).
- **Probintziako Trafiko Buruzagitzaren tasak:** urtean kopuru finko bat ordaindu behar dute autoeskolek. Ikasleak, azterketa-deialdi guztiak agortuta, dokumentazioa berri behar duenean, autoeskolak tasa gehigarri bat ezarri ohi du «berritzea» dela-eta, eta horri trafikoko tasak gehitu beharko zaizkio.
- **Kudeaketa-gastuak:** ikasleei baimena eskatu ondoren autoeskola batzuek kobratzen duten zenbatekoa da, ikasleen izenean gidabaimena eskuratzeko izapideak egiteagatik Probintziako Trafiko Buruzagitzaren aurrean.

2. Arrasateko autoeskolen eta beste merkatu geografiko batzuetako autoeskolen azterketa alderatua

22. Atal honetan Arrasateko eskolak beste merkatu geografiko batzuetako autoeskolekin alderatzen dituen azterketa egiten da. Horretarako, honako aldagai hauek hartzen dira kontuan: B motako gidabaimena eskuratzeko eskari efektiboa, eskari potentziala eta eskola praktikoaren prezioa.

A. Eskari efektiboa

23. Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak jaulkitako B motako baimen-kopuruaren aldagaia hartzen da kontuan B motako gidabaimenaren eskari efektiboa gutxi gorabehera kalkulatzeko.

Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak jaulkitako lizentzia-kopuruari buruzko datuak bakarrik eskaintzen ditu probintziak banakatuta. Horregatik, egokitzen jo da



Arrasateko datuak Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko lurraldeekin zein EAEko eta Estatuko datuekin alderatzea.


DGTk eskainitako datuen arabera, urtean jaulkitako gidabaimenen kopuru absolutuak etengabe egin du behera 2008 eta 2013 bitartean merkatu guztietan. Hurrengo taulan data horretatik aurrera izan den bilakaera ikus daiteke.²

JAULKITAKO B MOTAKO GIDABAIMENAK				
	2.013	2.014	2.015	2.016
Araba	2.488	2.783	2.712	2.807
Gipuzkoa	4.433	4.717	4.541	4.925
Bizkaia	7.210	7.639	7.560	8.149
EAE	14.131	15.139	14.813	15.881
Arrasate	153	171	131	139
Estatua	357.889	367.543	379.313	414.452

Iturria: DGT

Ikus daitekeenez, 2014tik aurrera, beheranzko joera aldatu egiten da eta suspertzen hasten da. Dena den, 2015. urtean, jaulkitako gidabaimenen kopuruak beherantz egiten du, bai EAEn, bai lurralde bakoitzean eta Arrasaten ere. 2016an, jaulkitako gidabaimenen kopurua leheneratu egiten da.

24. *Per cápita* jaulki diren B motako lizentzien kopurua kalkulatu da, merkatuen arteko alderaketa esanguratsuagoa izan dadin. Beraz, grafikoan ikus daitekeen bezala, Arrasaten, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, EAE eta Estatuan ez bezala, 2016an *per cápita* jaulkitako zirkulazio-baimenen kopurua 2013koaren azpitik dago.




Iturria: Guk geuk egin, DGTren datuetan oinarrituta.

² <http://www.dgt.es/es/seguridad-vial/estadisticas-e-indicadores/permisos-conduccion/tablas-estadisticas/> (kontsulta egin zen azken eguna: 2018ko urtarrilaren 26a).

B. Eskari potentziala

25. Autoeskolek eskaintzen dituzten zerbitzuen kontsumitzaile mota pertsona gaztea da (18 eta 24 urte bitarteko adinekoa) B motako lizentzia eskuratu nahi duena. DGTren datuen arabera, arauzko adina betetzean gidabaimena eskuratzeko joerari eusten zaio, eta hori B motako gidabaimenean ikus daiteke argiago. Hala, 2017an, lizentzia horren jaulkipen guztietatik % 63 lehen aipatu dugun adin-tarteko pertsonentzako ziren³.

Hortaz, egokitzen jo da 18-24 urteko adin-tartean dagoen biztanleriaren bilakaera demografikoaren aldagaia aztertzea, hiri desberdinetan B motako gidabaimenak duen eskari potentziala alderatzeko.⁴



Iturria: Geuk egina, INEren datuetan oinarrituta Errolda Jarraituaren Estatistika.

Grafiko honetan ikus daitekeenez, Arrasate eta Beasainen, 2013-2016 aldiko urte guztietan 18 eta 24 urte bitarteko biztanleriak behera egin du, eta beraz, baita autoeskolek eskaintzen dituzten zerbitzuen eskari potentzialak ere. Bestalde, Irunen, 2014 eta 2015 urteetan pixka bat hazi bazen ere, aztertzen gabiltzan aldiaren hasieran eta amaieran, behera egin zuen biztanleriak adin-tarte horretan. Bilbo eta Donostiako hiriburuei dagokienez, aldiaren hasieran biztanleriak behera egin bazuen ere, 2016. urte amaieran eskari potentzialak

³ DGT. https://sedapl.dgt.gob.es/WEB_IEST_CONSULTA/subcategoria.faces

⁴ Iturria: EIN. Errolda Jarraituaren Estatistika urtarilaren 1ean.
http://www.ine.es/dyngs/INEbase/es/operacion.htm?c=Estadistica_C&cid=1254736177012&menu=resultados&idp=1254734710990



gora egin zuen hiriburu bietan. Erreterria nabarmentzen da, izan ere, biztanleriaren bilakaera positiboa izan du aldi guztian zehar adin-tarte horretan, eta beraz, autoeskoletako zerbitzuen eskari potentziala ere positiboa izan du.

Aldi osoa kontuan hartzen badugu, 2016ko urteko aldakuntza aztertuz gero, 2013. urtearekin alderatuta, beherakada kopuru hauen artean ibili da: % 10 Arrasaten, % 9 Beasainen, eta % 6 Bilbon; eta gorakadak berriz tarte hauetan ibili dira: % 0,2 Irunen, % 1 Donostian, eta % 12 Erreterrian.

26. Hortaz, Arrasateko eskari potentziala beste udalerri batzuetakoa baino txarragoa izan arren, azertu ditugun beste herri batzuetakoaren antzekoa da, esaterako Beasain eta Bilbokoaren antzekoa.


C. Prezioak

27. Ondoren, Arrasateko autoeskoletako B motako gidabaimenaren prezioak alderatuko beste herri edo hiri batzuetako autoeskoletan duen prezioarekin. Horretarako LEAk 2016an bildutako datuak erabiliko ditugu.

B BAIMENAREN PREZIOA 2016AN	
UDALERRIA	PREZIOA (€)
IRUN	921,75
ERRETERIA	1.454,60
BEASAIN	1.593,82
ARRASATE	1.700,00

Iturria: Guk geuk egina, autoeskolek emandako datuetan oinarrituta.


Hurrengo grafikoan ikus daitekeen bezala, Arrasaten B gidabaimenak duen prezioa Gipuzkoako beste udalerri batzuetakoarekin alderatzen bada, prezioa beti da garestiagoa Arrasaten. Nabarmentzekoa da Iruneko prezioarekin duen aldea, Arrasateko prezioa Irunekoa baino % 84,4 garestiagoa baita.



28. Estatuko beste hiri batzuetako prezioarekin dagoen aldeari dagokionez, OCUK 2015ean 25 hiritan egindako konparazio-azterlana erreferentziatzat



hartuz gero, prezioa Donostiakoa baino % 8 garestiagoa dela egiazta daiteke, hots, azterlan horretan agertzen zen prezio garestiena baino % 8 garestiagoa⁵.



D. Kostuak

29. Argitu behar den gaia da, ea prezio garestiago hori azaldu daitekeen zerbitzua emateko kostuak nabarmen desberdinak izango balirateke hirien artean eta garestiagoak Arrasateren kasuan.

Zerbitzua ematerakoan eragin handiagoa duten kostu-aldagaiak langileen eta ibilgailuen kostuak, erregaiaren prezioa eta lokalaren prezioa dira.

30. Ez dira kontuan hartzen pertsonal-kostuetako desberdintasunak, Autoeskolen Hitzarmen Kolektibo Nazionalak zehaztutakoak baitira, ezta ibilgailuen kostuak ere, desberdintasun nabarmenik ez dagoelako hirien arteko prezioetan ibilgailu berberarengatik.

Erregaiaren prezioak ere ezin daiteke esan hirien artean desberdintasun nabarmenik duenik, Industria, Energia eta Turismo Ministerioak ibilgailuentzako gasolioaren batez besteko prezioak argitaratu zituen, eta horixe da autoeskoletako ibilgailu gehienek erabiltzen dutena. Datu horien arabera, gasolioaren prezioak % 11,1eko gorabehera izan zuen 2015ean, 106,4 €/litroko probintzia merkeenean, eta 117,5 €/litroko probintziarik garestienera. Gasolioaren batez besteko prezioa Gipuzkoan 110,18 € da litroko.⁶

⁵ Iturria: OCU. <https://www.ocu.org/coches/coches/informe/precio-autoescuela> (azken kontsultateguna: 2018ko urtarrilaren 26a).


⁶

<http://www.minetad.gob.es/energia/petroleo/Precios/Informes/InformesAnuales/Paginas/InformeAnuales.aspx>



31. Ondoren, kostu finkoetan eragina duen beste aldagai bat hartzen da kontuan hiri-lurzoruaren prezioa m²-ko. Kasu honetan erabili dugun iturria Sustapen Ministerioa da, hainbat tamainatako udalerrietako hiri-lurzoruaren metro koadroko batez besteko prezioari buruzko hiruhilekoko datuak ematen baititu. Zehazki, 10.000 eta 50.000 biztanle artean dituzten udalerriak (tarte horretan dago Arrasate) eta 50.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerriak (hiri hauek hartu dira B baimena eskuratzeko prezioak alderatzerakoan) hautatu dira.⁷

Hurrengo grafikoan, 10.000 eta 50.000 biztanle artean dituzten Gipuzkoako udalerrien hiri-lurzoruaren metro koadroak dauzkan prezioak erakusten dira (ehunekotan), 50.000 biztanle baino gehiago dituzten Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, EAE eta Estatuko udalerrietako hiri-lurzoruaren metro koadroaren batez besteko prezioarekin batera.



e.a: ez dago daturik.

Iturria: Geuk egina, Sustapen Ministerioaren datuetan oinarrituta. Hiri-lurzoruaren prezioei buruzko estatistika.

Zeinu negatiboak 10.000 eta 50.000 biztanle artean dituzten Gipuzkoako udalerrietan (adibidez Arrasate) prezio hori alderatze-merkatuan baino txikiagoa dela adierazten du, eta alderantziz. Ez dira esanguratsuak 2014ko datuak, data horretan neurritz kanpoko egoera erakusten baita, aldi horretako gainerako urteekin alderatuta⁸.

⁷ <http://www.fomento.es/be2/?nivel=2&orden=36000000>

⁸ Sustapen Ministerioa. Hiri-lurzoruaren prezioei buruzko estatistika.
<http://www.fomento.gob.es/be2/?nivel=2&orden=36000000>

Hiri-lurzoruaren metro koadroaren batez besteko prezioa 10.000 eta 50.000 arteko biztanleria duten udalerrietan.																
	2013. urtea				2014. urtea				2015. urtea				2016. urtea			
	(hiruhilekoa)				(hiruhilekoa)				(hiruhilekoa)				(hiruhilekoa)			
	1.	2.	3.	4.	1.	2.	3.	4.	1.	2.	3.	4.	1.	2.	3.	4.
Gipuzkoa	e.a.	e.a.	120.1	.	.	e.a.	e.a.	471.9	145.6	e.a.	197.7	e.a.	233.0	e.a.	252.0	e.a.



32. Beraz, grafikoan ikus daitekeenez, 10.000 eta 50.000 biztanle artean dituzten Gipuzkoako udalerrietako hiri-lurzorua metro koadroaren prezioa Araba, EAE eta Estatuan 50.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrietako hiri-lurzorua metro koadroko prezioa baino txikiagoa zen 2013an eta 2015ean. Hala ere, 2016an aldea alderantzikatu egiten da eta prezioa garestiagoa da 10.000 eta 50.000 biztanle artean dituzten Gipuzkoako udalerrietan. Beraz, ezin daiteke ondorioztatu Arrasateko hiri-lurzorua metro koadroak duen prezioa alderatuz gero, udalerrri honetako autoeskolen kostuetan eragin handiagoa duenik aztertutako gainerako merkatuetan baino.

Bestalde, hiri-lurzorua metro koadroaren prezioa aldatu egiten da hiriko barruti batetik bestera, eta aldatu egingo dira, era berean, autoeskolak kokapenaren arabera bere gain hartzen dituen gastuak.

33. Laburbilduz, kostuetan dagoen desberdintasuna ez da Arrasatek beste hiri batzuek baino prezio garestiagoak izateko arrazoia, baina B motako gidabaimenaren prezioa aztertu dugun Gipuzkoako gainerako udalerrietako prezioaren gainetik dago, eta Estatuko batez besteko prezioa baino % 50 altuagoa da.

3. Arrasateko autoeskolen merkatua

A. B motako gidabaimenaren prezioak

34. Ondorengo taulan, Arrasateko autoeskolek B motako gidabaimena eskuratzeko matrikula eta azterketa teorikoan, eskola praktikoa, azterketa praktikoa eta kudeaketa gastuetan ezartzen dituzten prezioak agertzen dira, autoeskolek emandako fakturen arabera.

Batzuetan, autoeskolek ikasleei jarduera berbera egiteagatik prezio desberdinak ezarri badizkiete ere, tauletan bildutako tarifa autoeskola bakoitzak nagusiki ezarri duen tarifa da. Beraz, beren ohiko tarifa da, eta gainerakoak, egotekotan, noizean behin ezarri dituzten tarifak dira.

ARRASATEKO AUTOESKOLAK FAKTUREN PREZIOAK (BEZ GABE) (€)												
	2013				2014				2015			
Autoeskola	Matrikula + Teorikoa	Eskola praktikoa	Azterketa praktikoa	Kudeaketa	Matrikula + Teorikoa	Eskola praktikoa	Azterketa praktikoa	Kudeaketa	Matrikula + Teorikoa	Eskola praktikoa	Azterketa praktikoa	Kudeaketa
ARRASATE	525,00	43,55	72,45	80,70	525,00	44,45	72,45	80,70	525,00	44,45	72,45	80,70
LENIZ	525,00	44,80	72,55	80,65	525,00	44,80	72,55	80,65	525,00	44,80	72,55	80,65
PENAKOBA	525,05	44,50	72,70	80,95	525,05	44,50	72,70	80,95	525,05	44,50	72,70	80,95
TELLERIA	524,95	43,65	72,50	80,75	524,95	43,65	72,50	80,75	524,95	43,65	72,50	80,75
Autoeskola	2016				2017							
	Matrikula	Eskola	Azterketa	Kudeaketa	Matrikula	Eskola	Azterketa	Kudeaketa				



	+ Teorikoa	praktikoa	praktikoa		+ Teorikoa	praktikoa	praktikoa	
ARRASATE	525,00	44,45	72,45	80,70	525,00	43,70	72,45	80,70
LENIZ	525,00	44,80	72,55	80,65	525,00	44,80	72,55	80,65
PENAKOBA	525,05	44,50	72,70	80,95	525,05	44,50	72,70	80,95
TELLERIA	524,95	43,65	72,50	80,75	524,95	43,65	72,50	80,75

35. Gertaerak zehazteko pleguan adierazi bezala, tarifak edo prezioak bat datozela irizten da, erreferentziazko balioaren % 4ko tartean badaude, prezioarekiko sentsibilitatea hain handia izanda, balio hori baino desberdintasun handiagoak kontsumitzaileak hautatu duen autoeskola aldatzea eragin baitezake⁹. Arrasateko autoeskolen kasuan, ezarritako tarifa askoz ere tarte murriztuagoan aldatu da, erreferentziazko balioaren +-% 1 baino gutxiago.

ARRASATEKO AUTOESKOLAK BAT DATOZEN PREZIOAK (€)								
	2013				2014-2017			
	Matrikula + Teorikoa	Eskola praktiko a	Azterketa praktikoa	Kudeake ta- gastuak	Matrikula + Teorikoa	Eskola praktiko a	Azterket a praktiko a	Kudeake ta- gastuak
ERREFERENTZIAZKO PREZIOA -% 1	519,75	43,68	71,82	79,95	519,75	43,91	71,82	79,95
ERREFERENTZIAZKO PREZIOA	525,00	44,13	72,55	80,76	525,00	44,35	72,55	80,76
ERREFERENTZIAZKO PREZIOA +% 1	530,25	44,57	73,28	81,57	530,25	44,79	73,28	81,57

Hurrengo taulan, X erabili dugu erreferentziazko prezioa eta aplikatutakoa berdin-berdinak direla adierazteko, 2014, 2015, 2016 eta 2017. urteetan.

PREZIO BERTINA EZARTZEA												
AUTOESKOLA	2013				2014				2015			
	Matr.	E.Prak.	Azt.	Kudeak.	Matr.	E.Prak.	Azt.	Kudeak.	Matr.	E.Prak.	Azt.	Kudeak.
ARRASATE	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
LENIZ	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
PENAKOBA	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
TELLERIA	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X


AUTOESKOLA	2016				2017			
	Matr.	E.Prak.	Azt.	Kudeak.	Matr.	E.Prak.	Azt.	Kudeak.
ARRASATE	X	X	X	X	X	X	X	X
LENIZ	X	X	X	X	X	X	X	X
PENAKOBA	X	X	X	X	X	X	X	X
TELLERIA	X	X	X	X	X	X	X	X

36. Beraz, egiaztatu da udalerriko autoeskola guztiek prezio berdinak erabili dituztela etenik gabe aztertutako aldi osoan zehar.

⁹ Horri buruz, ikusi LEAren 7/2012 ebazpena, 7/2012 espedientea, Gasteizko autoeskolak, 37. puntua, EAEANK berretsitako ebazpena.

B. Merkatu-kuotak eta kontzentrazio-maila

37. Arrasateko autoeskolen merkatu-kuotak aztertu dira, Gipuzkoako Trafiko Buruzagitzak emandako B baimenarekin zirkulatzeko gai diren pertsonen dagokienez. Grafiko honetan jasotzen dira.



Iturria: Guk geuk egina, DGTren datuetan oinarrituta. Gipuzkoako Trafiko Buruzagitza
2013 (*): ARRASATEko kuotan urte osoan autoeskolan zirkulaziorako gai bihurtu diren pertsonak barne hartzen dira, negozioa egungo titularrari noiz eskualdatu zitzaion kontuan hartu gabe.

38. Aldi osoan zehar Arrasaten LENIZ izan da autoeskola guztietan lehenengoa; merkatuaren % 49,6ko kuota zuen 2016an. Bigarren lekuan ARRASATE dago, % 21,6ko kuota zuen 2016an, eta hirugarren eta laugarren lekuan PEÑAKOBA eta TELLERIA daude, biak % 14,4ko kuotarekin 2016an¹⁰.

Gorabehera batzuk izan ezik, operadoreen merkatu-kuotak egonkor mantentzen direla ikus daiteke aldi osoan zehar. LENIZ da merkatuan kokapen onena duen autoeskola. Dena den, ezin daiteke esan autoeskola horrek merkatuan nagusitasunik duenik, nekez izan baitezake erabakiak hartzeko gaitasuna (adibidez, zerbitzuaren prezioa igotzea), aztertzen ari garena bezalako merkatu txikietan, merkatuko beste lehiakideak kontuan hartu gabe.

39. Egokitzen jotzen da, B gidabaimena eskuratzeko irakaskuntza-zerbitzuen merkatuko kontzentrazio-mailari buruzko azterketa Herfindahl-Hirschman

¹⁰ 2017a ez da urte adierazgarria, batetik, emandako datuak azaroaren 29ra artekoak direlako eta, bestetik, urte horretan inpaktu handiko aztertzaileen grebaren ondorioz, azterketa egin zutenen kopurua osoa, eta beraz, gainditu zutenena, nabarmen murrizten delako.



Indizearekin (HHI) osatzea. Indize hau merkatu bateko eskaintzan edo eskarian jarduten duten enpresa bakoitzaren portzentajezko partaidetzaren batura ber bi bezala adierazten da, eta garrantzitsua da, operadore handien kuotei proportzionalki garrantzi handiagoa ematen dielako¹¹.

Herfindahl-Hirschman kontzentrazio-indizea				
	2013	2014	2015	2016
HHI	3.263	2.966	3.154	3.344

40. HHI 1800 baino handiagoa bada, merkatuko kontzentrazioa handia dela esan nahi du. Kasu honetan, indizea 3000 puntu baino handiagoa da, eta horrek kontzentrazio-maila handia dela adierazten du. Gainera, berretsi egiten du, lehenengo bi autoeskolek merkatu-kuotaren % 70a baitaukate.

C. Autoeskolen gastuen egitura

41. Gertaerak zehazteko pleguan bildutako datuek desberdintasuna erakusten dute kostu-aldagaietan, Arrasateko autoeskoletako lokal, ibilgailu eta langileen kopuruari dagokienez.

Hain zuzen ere, autoeskoletako langileen kopurua 1,21 eta 3 langile artekoa da; ibilgailuen kopurua desberdina da autoeskola bakoitzean, 2 eta 7 ibilgailu artean dituzte; eta azkenik, lokalen kopurua ere aldatu egiten da, 1 eta 2 lokal artean ditu autoeskola bakoitzak.

42. Azterketa horretan sakontzeko asmoz, aipatutako inputen erabilera erlatiboaren ratioak kalkulatu dira, eta horiek ere autoeskolen produkzio-egitura desberdina erakusten dute. Taula honetan jasotzen dira.

ARRASATEKO AUTOESKOLAK ALDERDIEN ERABILERA ERLATIBOAREN RATIOAK												
AUTOESKOLA	ZIRKULATZEKO GAI / IBILGAILUA				IBILGAILUAK / LANGILEA				ZIRKULATZEKO GAI / LANGILEA			
	2013	2014	2015	2016	2013	2014	2015	2016	2013	2014	2015	2016
ARRASATE	23,5	22,0	18,5	15,0	1,0	1,0	1,0	1,0	23,5	22,0	18,5	15,0
LENIZ	11,2	10,1	9,7	9,9	2,0	2,3	2,0	2,3	22,3	23,7	19,3	23,0
PENAKOBA	4,0	4,9	6,0	8,3	1,6	2,0	2,0	2,0	6,5	9,8	12,0	16,5
TELLERIA	9,7	12,0	9,4	6,7	1,5	1,5	1,5	1,5	14,5	18,0	11,0	10,0

43. Berriz ere, desberdintasun handia ikus daiteke autoeskolen emaitzen artean. 2016an arreta jartzen badugu, B baimenarekin zirkulatzeko gai diren ikasketa-ibilgailuen kopurua 6,7 eta 15 artean dago. Langileko ibilgailu ratioa 1 eta 2,3 artekoa da autoeskolaren arabera, eta azkenik zirkulaziorako gai

¹¹ 10.000ko oinarri batean, kontzentrazioa honela sailkatzen da:

- HHI 1.000 baino txikiagoa bada, kontzentrazioa tx kitzat hartzen da.
- HHI 1.000 eta 1.800 artekoa bada, kontzentrazioa ertaintzat hartzen da.
- HHI 1.800 baino handiagoa bada, kontzentrazio handitzat hartzen da.



direnen eta langileen arteko zatidurak ere jarrera heterogeneoak erakusten ditu, 10 eta 23 artekoa baita urte horretan.

44. Kostu-aldagaien sakabanaketa hau areagotu egiten da aldagaien berezko alderdiak aztertzen baldin badira.

- Ibilgailuen antzintasunak eragina du gastuan, kontsumoa, azterketak eta konponketak ez baitira berdinak ibilgailua berria bada edo dagoeneko kilometro kopuru handia egin badu.

- Autoeskoletan lanean ari diren langileek ere kostuen estrategia desberdina erakusten du administrazio-langilea kontratatzen denean edo zeregin horiek irakasleek edo zuzendariak burutzen dituztenean.

- Egoitza bat baino gehiago irekitzeak enpresa-estrategiari buruzko erabakiak hartzea dakar eta baita gastu batzuk bere gain hartzea ere, baina fakturazio handiagoa izan arren, kostuen osaera oso desberdina erakusten dute.

- Lokalek eta irakasleek errentagarritasun desberdina sortzen dute gidabaimen bati buruzko prestakuntza bakarrik ematen badute (B motakoa) edo beste baimenak eskuratzeko (AM, A1, A2, A, B, BTP, B+E, C1, C1+E, C, C+E, D1, D1+E, D, D+E) prestakuntza ere eskaintzen badute¹².

45. Kostu txikiagoek, bai produkzio-faktore merkeagoak erabiltzeagatik, bai produkzio-faktore berberak modu eraginkorragoan erabiltzeagatik, bere lehiakideek baino prezio merkeagoa ezartzeko gaitasuna ematen die autoeskolei, baina horien marjina berbera lortuz.

Aztertutako autoeskolen gastuen egituren arteko desberdintasuna ikusita, merkatu lehiakor batean, berezkoa litzateke gastuetan lehiakorrenak diren autoeskolek euren desberdintzea bilatzea, eta beraz, prezioa lehentasunezko faktoretzat hartzea merkatu-kuota irabazteko bere lehiakideen kontura. Prezioari eustea edo igotzea ere legezkoa izango litzateke eta kalitate gehiagoko zerbitzuarekin desberdintzea.

Hala ere, autoeskolek ezarritako tarifa bat datorrela egiaztatu da B motako gidabaimena osatzen duten osagai guztietan: matrikula+teorikoa 525 €, eskola praktikoa 44,35 €, azterketa praktikoa 72,55 € eta kudeaketa-gastuak 80,76 €. Ondorioz, Arrasateko autoeskolen tarifak bat etortzeak merkatuan ez dagoela benetako lehiarik esan nahi du.

¹² Gida baimen motak jasotzen ditu Gidarien Erregelamendu Orokorra onartzen duen maiatzaren 8ko 818/2009 Errege Dekretuaren 3. artikulua (BOE, 138 zk., 2009ko ekainak 8).



D. Eskariaren elastikotasuna

46. B. motako gidabaimenaren eskaria oso ez-elastikoa da. Alegia, eskariaren merkatu-erantzun orokorra ez da ia aldatzen zerbitzuaren prezioaren aldaketen aurrean, B. motako gidabaimenak ez duelako egiazko ordezkorik merkatuan.

Hori bai, norbanakoak sentiberak dira autoeskolen prezio-desberdintasunen aurrean. Alegia, autoeskola batek prezioa jaitsiko balu, bere eskariak gora egingo luke lehiakideen merkatu-kuotaren kontura. Merkatuaren funtzionamendu normalaren ondorio litzateke hori, eskaintzaile ororen xedea modu eraginkorrean lehiatuz etekinak eta/edo merkatu-kuota handitzea denez, eta, horrenbestez, lehiakideen bizkar kuota areagotzea. Aldiz, ez da zentzuzkoa, merkatu lehiakor batean autoeskola guztiek prezio bera finkatzea aipatutakoa kontuan hartu gabe.

Kontrara, eskariak autoeskolek eskainitako zerbitzuen aurrean duen indar eskasaren seinale izan ohi da gidabaimenak eskuratzeko prezioen gorakada kolektiboa. Hau da, autoeskolek prezioa handitzea adostearen aurrean eskariak ez du erreakzio-ahalmenik, zerbitzuak ez duelako gertuko ordezkorik eta B gidabaimena nahitaezko ondasuna delako biztanleriarentzako. Beraz, merkatuko prezio lehiakorraren gainetik adostutako prezioa biziki kaltegarria da kontsumitzailearentzat eskari ez-elastikoa duen merkatu batean.

E. Informazioaren teknologien erabilera

47. Aztertutako autoeskolek ez dute web-orririk eskaintzen dituzten zerbitzuak eta ezartzen dituzten tarifak, zein izan ditzaketen eskaintzak deskribatzeko. Merkatu honen itxurazko gardentasuna eztabaidagarria da, ez baitirudi logikoa, egun, informazioaren teknologien erabilera hain oparoa denean, aztertutako autoeskolek bitarteko horiek ez erabiltzea. Hori guztia, gainera, euren eskari potentziala eta efektiboa batez ere pertsona gazteek osatzen dutela kontuan hartuta, informazioaren teknologien erabileran trebatuta baitaude, eta ohituta bitarteko horien bidez eskaintzak alderatzen.

Halaber, nabarmentzekoa da eskaintza apartekorik edo *low cost* eskaintzarik ez eskaintzea Arrasateko autoeskolek, berriz ere, kontuan hartuta eskaintzen dituzten zerbitzuak nagusiki nori zuzentzen zaizkion.

4. Ondorioak

48. Arrasateko autoeskolen eskaria beste merkatu geografiko batzuetakoarekin alderatu da, eta egiaztatu da B gidabaimenaren eskari efektiboak (jaulkitako baimen kopuruaren bidez neurtuta), zein B gidabaimenaren eskari potentzialak



(18 eta 24 urte bitarteko biztanleriaren aldagaiaren bidez neurtuta) balio txarragoak dituztela Arrasaten, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, EAE eta Estatuan baino.

49. Beste merkatu geografiko batzuekin alderatuta, Arrasateko autoeskoletan ezartzen diren tarifa garestiagoak ez dira justifikatzen autoeskola baten gastuen egitura osatzen duten osagaiengatik, autoeskolaren kokapen geografikoaren arabera alda baitaitezke. Ez dago desberdintasun esanguratsurik pertsonalkostuetan, ibilgailua eskuratzeko kostuetan, erregaiaren kostuetan eta hiri-lurzuaren metro koadroko prezioaren kostuan, eta beraz, ez dago arrazoirik Arrasaten alderatu diren beste hirietan baino prezio garestiagoa edukitzeko.

50. Arrasateko autoeskolek, B gidabaimena lortzeko prezio berdinak dituzten arren, gastuen egitura eratzen dituzten input desberdinak dauzkate, adibidez, lokal-kopurua, ibilgailu-kopurua edo langile-kopurua.

51. Autoeskolen eskalan eta beren produkzio-faktoreen erabileran dagoen aniztasuna kontuan hartuta, ez dirudi zentzuzkoa denik, tarifen arteko hain antzekotasun handia, eta gainera prezio-maila hain handietan beste hiri batzuekin alderatuta, burututako azterketek agerian jartzen duten bezala.

52. Prezioa kalkulatzeari enpresen banakako erabakia izan beharko litzateke, gastuez gain erabakiak hartzeko beste alderdi subjektibo batzuk kontuan hartuko dituenak: lortu nahi den irabazi-marjina, eskaintzen den zerbitzuaren eskaria, enpresaren biziraupen-, hazkunde- edo lidergo-helburua, eskaintzen duen zerbitzuaren ezaugarri bereizgarriak, marka desberdintzea, etab. Osagai horien guztien baturak prezio desberdinak eragin beharko lituzke autoeskoletan, kontsumitzaileen ordaintzeko gogoa desberdina baita eskaintzen dituzten zerbitzuen ezaugarrien arabera.

53. B motako gidabaimenaren eskariaren elastikotasuna oso txikia da, hau da, eskariaren merkatu-erantzun orokorra ez da ia aldatzen zerbitzuaren prezioaren aldaketan aurrean, B motako gidabaimenak ez duelako egiazko ordezkorik merkatuan. Hori bai, norbanakoak sentiberak dira autoeskolen prezio-desberdintasunen aurrean. Alegia, autoeskola batek prezioa jaitsiko balu, bere eskariak gora egingo luke lehiakideen merkatu-kuota murriztuz. Merkatuaren funtzionamendu normalaren ondorioz litzateke hori, eskaintzaile ororen xedea modu eraginkorrean lehiatuz etekinak eta/edo merkatu-kuota handitzea denez, eta, horrenbestez, lehiakideen bizkar kuota areagotzea. Ekonomia aldetik, ez dago justifikatuta autoeskola guztiek prezio berberak ezartzea eta aurrez esandakoa kontuan ez izatea.



IV. EGITATE FROGATUAK

1. Merkatu adierazgarria

54. Lehiarekiko arau-haustea aurrez zehaztu behar den produktu-merkatuan eta merkatu geografikoan burutzen dira.

55. Espediente honi dagokion produktu-merkatua B. motako gidabaimena lortzeko irakaskuntzarena da. Gidabaimen horren bidez, honako ibilgailu hauek gidatzeko baimena lortzen da¹³:

- 3.500 kg baino gehiagoko baimendutako gehieneko masa ez duten ibilgailuak, gehienez zortzi bidaieri, gidariak gain, garraiatzeko diseinatu eta eraiki direnak. Ibilgailu horiek atoa eraman ahalko dute, 750 kg baino gehiagoko baimendutako gehieneko masa ez badu.
- Elkarri lotutako ibilgailuen multzoa, B. mailako gida baimenarekin gida daitekeen trakzio-ibilgailu eta 750 kg baino gehiagoko baimendutako gehieneko masa ez duen atoi banaz osatua, baldin eta multzoak 4.250 kg baino gehiagoko baimendutako gehieneko masa ez badu, ibilgailu horien berariazko onarpen-arauek ezarritako xedapenak bazter utzi gabe.
- Triziklo eta kuartriziklo motordunak. Gida baimena lortzeko gutxienean adina hemezortzi urtekoa da. Hala ere, hogeita bat urte bete arte ez da baimenik emango 15 kW baino gehiagoko potentziako triziklo motordunak gidatzeko.

Aztertu ditugun autoeskoletatik hiruk hainbat gidabaimen eskuratzeko prestakuntza eskaintzen badute ere, B gidabaimena da Arrasateko lau autoeskoletak eskaintzen duten bakarra. Eskaera gehien duen gidabaimena da eta produktu desberdindua da, beste gidabaimen mota batek ordezkatu ezin dezakeena. Lehiaren defentsarako agintarien aurreko hainbat ebazpenek produktu-merkatuaren definizio hori ziurtatzen dute¹⁴.

¹³ 818/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa Gidarien Erregelamendu Orokorra arautzen duena. BOE, 138 zk., 2009ko ekainak 8

¹⁴ Ikus, besteak beste, desagertutako Lehiaren Defentsarako Auzitegiaren ebazpenak: 391/96, Linareseko autoeskolena; 421/97, Collado-Villalbako autoeskolena; 461/99, Alcaláko autoeskolena; 462/99, Tenerifeko autoeskolena; 532/02 Cosladako autoeskolena; 582/2004, Extremadurako autoeskolena. Lehiaren Defentsarako Kataluniako Auzitegiarenak: 3/03, Sabadelleko autoeskolena; 5/04, Santa Coloma de Gramaneteko autoeskolena; 6/04, Badalonako autoeskolena; eta 8/04, L'Hospitalet de Llobregateko autoeskolena. Lehiaren Defentsarako Galiziako Auzitegiarena: S 1/2007, Vigoko autoeskolena. Lehiaren Defentsarako Aragoiko Auzitegiarena: 3/2009, Zaragozako autoeskolena.

Berriagoak dira Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren ebazpenak: SAMAD/07/2015 Alcalá de Henareseko autoeskolena, eta LEAren ebazpena, 7/2012, Gasteizko autoeskolena, 2015eko apirilaren 29an emana.



56. Merkatu geografikoak barne hartzen du eraginpeko operadoreek diharduten eremua, lehia-baldintzak aski homogeneoak direna, baina aski desberdinak ingurukoen aldean.

B. motako gidabaimena lortzeko irakaskuntzaren merkatuaren muga geografikoak zehazteko garaian, funtsezkoa da ikaslearen ohiko etxebizitzarekiko gertutasunaren faktorea, faktore bereizgarria, kontsumitzaileek oso kontuan hartzen dutena. Arrasate merkatu aski handia da, eta askotarikoa, aldiz, B. mailako gidabaimena lortzeko bertako irakaskuntza-zerbitzuen eskaintza; hainbeste, balizko bezeroek ez baitute hiritik kanpoko autoeskoletara jo behar. Hiritik kanpoko autoeskola batera joateak hainbat eragozpen dakartza, joan-etorrien kostua eta iraupena kasu¹⁵.

Horrenbestez, merkatu geografikoa toki mailakoa da; alegia, Arrasatera mugatua.

57. Hala bada, **merkatu adierazgarria** Arrasaten B. motako gidabaimena lortzeko irakaskuntzarena da.

2. Tarifak

58. Espedientean jaso dira LEAk eskatuta, autoeskolek LEAr jakinarazitako tarifak, zein balizko bezeroei entregatutako aurrekontuetan bildutakoak, eta ondorengo taula honetan agertzen dira¹⁶.

ARRASATEKO AUTOESKOLAK PREZIOAK (BEZ GABE) (€)												
	2013				2014				2015			
Autoeskola	Matrikula + Teorikoa	Eskola praktikoa	Azterketa praktikoa	Kudeaketa	Matrikula + Teorikoa	Eskola praktikoa	Azterketa praktikoa	Kudeaketa	Matrikula + Teorikoa	Eskola praktikoa	Azterketa praktikoa	Kudeaketa
ARRASATE	525,00	44,45	72,45	80,70	525,00	44,45	72,45	80,70	525,00	44,45	72,45	80,70
LENIZ	525,00	44,80	72,55	80,65	525,00	44,80	72,55	80,65	525,00	44,80	72,55	80,65
PEÑAKOBA	525,05	44,50	72,70	80,95	525,05	44,50	72,70	80,95	525,05	44,50	72,70	80,95
TELLERIA	524,95	43,65	72,50	80,75	524,95	43,65	72,50	80,75	524,95	43,65	72,50	80,75

¹⁵ Gipuzkoako Trafiko Buruzagitzak emandako informazioa oinarritzat hartuta, egiaztatu da Arrasateko autoeskoletan B gidabaimenarekin zirkulatzeko gai diren guztien artetik, %81,2 Arrasaten edo autoeskolarik ez dagoen udalerrri mugakideetan (Leintz-Gatzaga, Aramaio) bizi dira. Oin-ohar hau aldatu egin da Alegazioak IV. ataleko, Gertaerak zehazteko pleguko akatsak 7. puntuan xedatutakoaren arabera.

Arrasaten dute egoitza Mondragon Corporation enpresa-taldeak (Euskadiko enpresa-talderik garrantzitsuenak), zein bere enpresa kooperatibo ugari, Mondragon Unibertsitateak, esaterako. Horregatik, egunero pertsona ugari joaten dira Arrasatera, lanera, zein unibertsitatera, eta horiek udalerrri horretan dauden autoeskolak aukera ditzakete gidatzeko eskolak hartzeko.

¹⁶ Autoeskolek emandako eskola praktikoen iraupena ia ez da aldatzen autoeskola batetik bestera (ARRASATE 55 minutu; LENIZ 60 minutu; PEÑAKOBA 50-60 minutu; TELLERIA 60 minutu).



Autoeskola	2016				2017			
	Matrikula + Teorikoa	Eskola praktikoa	Azterketa praktikoa	Kudeaketa	Matrikula + Teorikoa	Eskola praktikoa	Azterketa praktikoa	Kudeaketa
ARRASATE	525,00	44,45	72,45	80,70	525,00	43,70	72,45	80,70
LENIZ	525,00	44,80	72,55	80,65	525,00	44,80	72,55	80,65
PEÑAKOBA	525,05	44,50	72,70	80,95	525,05	44,50	72,70	80,95
TELLERIA	524,95	43,65	72,50	80,75	524,95	43,65	72,50	80,75

59. Taulan agertzen diren datuak aztertuz gero, B motako gidabaimena eskuratzea osatzen duten kontzeptu bakoitzaren prezioa oso antzekoa dela ikus dezakegu autoeskola guztietan, aldea zentimo batzuetakoa baino ez da. Hala, hurrengo taulan, kontzeptu bakoitzari ezarritako prezioak biribildu egin dira, dezimalak kenduta. Orain prezioak berdintsuak direla ikus daiteke ia zehaztasun osoz:

ARRASATEKO AUTOESKOLAK PREZIOAK (BEZ GABE) (€)												
Autoeskola	2013				2014				2015			
	Matrikula + Teorikoa	Eskola praktikoa	Azterketa praktikoa	Kudeaketa	Matrikula + Teorikoa	Eskola praktikoa	Azterketa praktikoa	Kudeaketa	Matrikula + Teorikoa	Eskola praktikoa	Azterketa praktikoa	Kudeaketa
ARRASATE	525	44	72	81	525	44	72	81	525	44	72	81
LENIZ	525	45	73	81	525	45	73	81	525	45	73	81
PEÑAKOBA	525	45	73	81	525	45	73	81	525	45	73	81
TELLERIA	525	44	73	81	525	44	73	81	525	44	73	81

Autoeskola	2016				2017			
	Matrikula + Teorikoa	Eskola praktikoa	Azterketa praktikoa	Kudeaketa	Matrikula + Teorikoa	Eskola praktikoa	Azterketa praktikoa	Kudeaketa
ARRASATE	525	44	72	81	525	44	72	81
LENIZ	525	45	73	81	525	45	73	81
PEÑAKOBA	525	45	73	81	525	45	73	81
TELLERIA	525	44	73	81	525	44	73	81

Hortaz, 2013, 2014, 2015, 2016 eta 2017 urteetan, ARRASATE, LENIZ, PEÑAKOBA eta TELERRIA autoeskolek tarifa berdinak eskaintzen zituzten matrikula + teorikoagatik (525 €, BEZ gabe), klase praktikoa emateagatik (44-45 €, BEZ gabe), azterketa praktikoa egiteagatik (72-73 €, BEZ gabe) eta gastuak kudeatzeagatik (81 €, BEZ gabe).

60. Gainera, emandako informazioan autoeskolek tarifa horri deskontuak ezartzen dizkiotela adierazi dute. Horregatik, Ikerketa Zuzendaritzak Arrasateko autoeskolek 2013-2017 aldian jaulkitako faktura guztiak aztertu ditu, benetan zein prezio ezarri duten egiaztatzeko.

Ondorengo taulan, Arrasateko autoeskolek B motako gidabaimena eskuratzeko matrikula eta azterketa teorikoan, eskola praktikoa, azterketa praktikoa eta kudeaketa gastuetan ezartzen dituzten prezioak agertzen dira, autoeskolek emandako fakturen arabera.



Batzuetan, ikasleei ekitaldi berean autoeskolek prezio desberdinak ezarri badizkiete ere (senide edo kolektiboei noizean behin egindako deskontuak), taulan agertzen diren prezioak normalean autoeskola bakoitzak ezartzen dituenak dira. Beraz, beren ohiko tarifa da, eta gainerakoak, egotekotan, noizean behin ezarri dituzten deskontuak dira.

ARRASATEKO AUTOESKOLAK FAKTUREN PREZIOAK (BEZ GABE) (€)												
	2013				2014				2015			
Autoeskola	Matrikula + Teorikoa	Eskola praktikoa	Azterketa praktikoa	Kudeaketa	Matrikula + Teorikoa	Eskola praktikoa	Azterketa praktikoa	Kudeaketa	Matrikula + Teorikoa	Eskola praktikoa	Azterketa praktikoa	Kudeaketa
ARRASATE	525,00	43,55	72,45	80,70	525,00	44,45	72,45	80,70	525,00	44,45	72,45	80,70
LENIZ	525,00	44,80	72,55	80,65	525,00	44,80	72,55	80,65	525,00	44,80	72,55	80,65
PENAKOBA	525,05	44,50	72,70	80,95	525,05	44,50	72,70	80,95	525,05	44,50	72,70	80,95
TELLERIA	524,95	43,65	72,50	80,75	524,95	43,65	72,50	80,75	524,95	43,65	72,50	80,75
	2016				2017							
Autoeskola	Matrikula + Teorikoa	Eskola praktikoa	Azterketa praktikoa	Kudeaketa	Matrikula + Teorikoa	Eskola praktikoa	Azterketa praktikoa	Kudeaketa				
ARRASATE	525,00	44,45	72,45	80,70	525,00	43,70	72,45	80,70				
LENIZ	525,00	44,80	72,55	80,65	525,00	44,80	72,55	80,65				
PENAKOBA	525,05	44,50	72,70	80,95	525,05	44,50	72,70	80,95				
TELLERIA	524,95	43,65	72,50	80,75	524,95	43,65	72,50	80,75				

Lehenengo aukeran gainditu eta B motako gidabaimena eskuratzeko 20 eskola praktikoa jasotzen dituen ikasleak ordainduko lukeen prezioa kalkulatzeko badugu¹⁷, autoeskola bakoitzean, autoeskola bakoitzak kobratzen duen prezioaren eta **batez besteko prezioaren** aldea % 1a baino txikiagoa da, % 0,10 eta % 0,82 artean baitago.

AUTOESKOLA	PREZIOA B GIDABAIMENA (€)	BATEZ BESTEKO PREZIOAREKIKO ALDEA
ARRASATE	1.702	% 0,10
LENIZ	1.709	% 0,53
PENAKOBA	1.704	% 0,19
TELLERIA	1.686	-% 0,82
BATEZ BESTEKO PREZIOA	1.700	

61. Beharrezkoa da Arrasateko autoeskolek prezio berdina ezarri duten fakturen portzentajea aztertzea. Horretarako, fakturretan benetan aplikatu diren zenbatekoak alderatzeko erreferentziazko prezioa zehaztu behar da. Erreferentziazko prezioa B gidabaimena osatzen duten kontzeptu bakoitzaren prezioaren batez besteko balioa da.

Tarifak edo prezioak bat datozela irizten da, erreferentziazko balioaren % 4ko tartean badaude, prezioarekiko sentsibilitatea hain handia izanda, balio hori baino desberdintasun handiagoak kontsumitzaileak hautatu duen autoeskola

¹⁷ 20 eskola praktikoren batez bestekoa erabili da sektoreko tarifen azterketetan (Ikusi, adibidez, <https://www.facua.org/es/noticia.php?Id=9596>).



aldatzea eragin baitezake¹⁸. Autoeskolek eskaintzen dituzten zerbitzuen kontsumitzaile arrunta pertsona gaztea da (18 eta 24 urte artekoak), B motako gidabaimena eskuratu nahi duena. Biztanle-segmentu hori, gehienbat, ikasleaz osatuta dago, lan-errentarik ez dutenak, eta, ondorioz, gidabaimena finantzatzeko, hein handi batean, familiaren laguntza behar dutenak. Arrasateko autoeskolen kasuan, ezarritako tarifa askoz ere tarte murriztuagoan aldatu da, erreferentziazko balioaren $\pm$ % 1 baino gutxiago.

ARRASATEKO AUTOESKOLAK BAT DATOZEN PREZIOAK (€)								
	2013				2014-2017			
	Matrikula + Teorikoa	Eskola praktiko a	Azterketa praktikoa	Kudeake ta- gastuak	Matrikula + Teorikoa	Eskola praktiko a	Azterket a praktiko a	Kudeake ta- gastuak
ERREFERENTZIAZKO PREZIOA -% 1	519,75	43,68	71,82	79,95	519,75	43,91	71,82	79,95
ERREFERENTZIAZKO PREZIOA	525,00	44,13	72,55	80,76	525,00	44,35	72,55	80,76
ERREFERENTZIAZKO PREZIOA +% 1	530,25	44,57	73,28	81,57	530,25	44,79	73,28	81,57

Aipatutako alderaketan lortutako emaitza ondorengo taulan jasotzen da:

ARRASATEKO AUTOESKOLAK PREZIO BERDINAREN EZARPEN PORTZENTAJEA												
AUTOESKOLA	2013				2014				2015			
	Matr.+ Teor.	E.Prak.	Azt.Prak.	Kudeak.	Matr.+ Teor.	E.Prak.	Azt.Prak.	Kudeak.	Matr.+ Teor.	E.Prak.	Azt.Prak.	Kudeak.
ARRASATE	% 96	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 91	% 82	% 100	% 100	% 86
LENIZ	% 85	% 100	% 100	% 100	% 65	% 100	% 100	% 94	% 70	% 100	% 100	% 100
PENAKOBA	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100
TELLERIA	% 95	% 100	% 100	% 100	% 88	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

AUTOESKOLA	2016				2017			
	Matr.+ Teor.	E.Prak.	Azt.Prak.	Kudeak.	Matr.+ Teor.	E.Prak.	Azt.Prak.	Kudeak.
ARRASATE	% 67	% 100	% 100	% 94	% 67	% 100	% 100	% 83
LENIZ	% 93	% 100	% 100	% 100	% 86	% 100	% 100	% 100
PENAKOBA	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100
TELLERIA	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100	% 100

- Egiaztatu da lau autoeskolek prezio berdina ezartzen dutela faktura guztietan klase praktikoari eta azterketa praktikoari dagokionez.
- Kudeaketa-gastuei buruz, ARRASATE autoeskolak deskontuak egin ditu noizean behin 2014, 2015, 2016 eta 2017 urteetan zehar, eta LENIZ autoeskolak 2014. urtean.
- Matrikula + teorikoaren prezioan deskontuak egin dituzte noizean behin ARRASATE autoeskolak 2013, 2015, 2016 eta 2017. urteetan, LENIZ

¹⁸ Horri buruz, ikusi LEAren 7/2012 ebazpena, 7/2012 espedientea, Gasteizko autoeskolak, 37. puntua, EAEANK berretsitako ebazpena.



autoeskolak 2013, 2014, 2015, 2016 eta 2017. urteetan eta TELLERIA autoeskolak 2013 eta 2014 urteetan.

- Azkenik, PEÑAKOBA autoeskolak deskontua egin du gidabaimenaren azken prezioan noiz behinka fakturretan 2014, 2015, 2016 eta 2017 urteetan. Deskontua 89 € eta 400 € artekoa izan da kasuaren arabera. Halaber, TELLERIA autoeskolak 200 euroko deskontua egin du faktura jakin batzuetan aztertutako aldian zehar.

62. Autoeskolaka laburbilduz, honako tarifa berdina hauek aplikatzen dira B gidabaimena eskuratzeko matrikula eta teorikoetarako, kudeaketa-gastuetarako eta klase praktikoetarako:

- ARRASATE autoeskolak tarifa berdina aplikatu ditu, batez ere matrikula + teorikorako, kudeaketa-gastuetarako, eskola praktikoak emateko eta azterketa praktikoa egiteko 2013, 2014, 2015, 2016 eta 2017ko aldi osoan zehar.
- LENIZ autoeskolak tarifa berdina aplikatu ditu, batez ere matrikula + teorikorako, kudeaketa-gastuetarako, eskola praktikoak emateko eta azterketa praktikoa egiteko 2013, 2014, 2015, 2016 eta 2017ko aldi osoan zehar.
- PEÑAKOBA autoeskolak tarifa berdina aplikatu ditu, batez ere matrikula + teorikorako, kudeaketa-gastuetarako, eskola praktikoak emateko eta azterketa praktikoa egiteko 2013, 2014, 2015, 2016 eta 2017ko aldi osoan zehar.
- TELLERIA autoeskolak tarifa berdina aplikatu ditu, batez ere matrikularako, kudeaketa-gastuetarako, eskola praktikoak emateko eta azterketa praktikoa egiteko 2013, 2014, 2015, 2016 eta 2017ko aldi osoan zehar.

63. Ondoren, Arrasateko autoeskoletako B motako gidabaimenaren prezioak alderatuko beste herri edo hiri batzuetako autoeskoletan duen prezioarekin. Horretarako, batetik LEAK 2016an bildutako datuak, eta bestetik OCUk 2015ean egindako konparaziozko azterketako datuak erabiltzen dira¹⁹.

B BAIMENAREN PREZIOA 2016AN		
UDALERRIA	PREZIOA (€)	B GIDABAIMENAREN GAINPREZIOA ARRASATEN - BESTE UDALERRI BATZUETAN (%)
IRUN	921,75	84,43
ERRETERIA	1.454,60	16,87

¹⁹ Iturria: OCU. <https://www.ocu.org/coches/coches/informe/precio-autoescuela> (azken kontsulta-eguna: 2018ko urtarrilaren 26a).



BEASAIN	1.593,82	6,66
ARRASATE	1.700,00	

Iturria: Guk geuk egina, autoeskoletan emandako datuetan oinarrituta.

Ikus daitekeen bezala, Arrasaten B baimenak duen prezioa Gipuzkoako beste udalerrri batzuetakoarekin alderatzen bada, prezioa beti da garestiagoa Arrasaten. Nabarmenezkoa da Iruneko prezioarekin duen aldea, Arrasateko prezioa Irunekoa baino % 84,4 garestiagoa baita.

B BAIMENAREN PREZIOA 2015EAN		
UDALERRIA	PREZIOA (€)	B GIDABAIMENAREN GAINPREZIOA ARRASATEN - BESTE HIRI BATZUETAN (%)
CORUNA	558	204,7
SEVILLA	572	197,2
BADAJOS	576	195,1
GIJÓN	582	192,1
SANTANDER	614	176,9
SALAMANCA	626	171,6
TENERIFE	717	137,1
MÁLAGA	725	134,5
KORDOBA	727	133,8
ALACANT	738	130,4
VALLADOLID	754	125,5
PALMA MALLORCAKOA	765	122,2
VALENTZIA	776	119,1
CUENCA	778	118,5
MADRIL	808	110,4
ZARAGOZA	853	99,3
IRUNA	927	83,4
MURTZIA	945	79,9
BILBO	949	79,1
BARTZELONA	949	79,1
VIGO	979	73,6
ALBACETE	995	70,9
LOGROÑO	1.080	57,4
GIRONA	1.258	35,1
DONOSTIA	1.575	7,9
ARRASATE	1.700	

Iturria: OCU

Estatuko beste hiri batzuetako prezioarekin dagoen aldeari dagokionez, OCUk 2015ean 25 hiritan egindako azterlana erreferentziatzen hartuz gero, prezioa Estatu osoko garestiena dela egiazta daiteke, hots, azterlan horretan agertzen zen prezio garestiena (Donostiakoa) baino garestiagoa.

3. Gastuen egitura

64. Autoeskoletako gastuen egitura honako hau da, pertsonal, ibilgailu eta lokalen aldagaiak kontuan hartuta:²⁰

ARRASATEKO AUTOESKOLAK			
GASTUEN EGITURA 2016 (Kopurua)			
AUTOESKOLA	EGOITZAK	LANGILEAK	IBILGAILUAK
LOKALAK			

²⁰ PEÑAKOBA autoeskolak Arrasate eta Oñatin dituen egoitzetan langile eta ibilgailu berberak erabiltzen ditu, eta beraz, establezimendu bakoitzeko datuak balioztatu ditu, autoeskola bakoitzean matrikulatutako ikasleen kopurua kontuan hartuz.



		GUZTIRA	ZUZENDARIAK	IRAKASLEAK	ADMINISTRARIAK		JABETZA	ALOKAIRUA
ARRASATE	1	2	1		1	2	1	
LENIZ	1	3	1	2		7	1	
PEÑAKOBA (1)	2	1,21	0,30	0,60	0,30	2,42	2	
TELLERIA	1	2	1		1	3	1	

Iturria: Autoeskolek emandako informazioa

- ARRASATE, LENIZ eta TELLERIA autoeskolek establezimendu bakarra dute, eta PEÑAKOBA autoeskolak berriz 2 ditu, Arrasateko autoeskola eta beste egoitza bat Oñatin.
- Langileei dagokionez, PEÑAKOBA autoeskolak 1,21 langile ditu, ARRASATE eta TELLERIA autoeskolek 2, eta LENIZ autoeskolak 3. Horietan guztietan, Langile Autonomoen Araubide bereziari eta Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrari lotuta lan egiten duten langileak daude²¹.
- Ibilgailu-kopuruari dagokionez, ARRASATE autoeskolak 2 ditu; PEÑAKOBA autoeskolak 2,42 ibilgailu ditu; TELLERIA autoeskolak 3 eta LENIZ autoeskolak 7 ibilgailu ditu.
- Lokal-kopuruari dagokionez, ARRASATE, LENIZ eta TELLERIA autoeskolek lokal bakarra dute jabetzan, eta PEÑAKOBA autoeskolak aldiz, bi lokal ditu jabetzan.

4. Gaingaituen kopurua

65. Zirkulaziorako eta B gidabaimenarekin gidatzeko gai direnenak inputatutako autoeskoletan 2013-2017 aldian:

B BAIMENAREKIN ZIRKULAZIORAKO GAI DIRENAK ARRASATEKO AUTOESKOLAK										
AUTOESKOLA	2013		2014		2015		2016		2017 (*)	
	GIDABAIMEN MOTA		GIDABAIMEN MOTA		GIDABAIMEN MOTA		GIDABAIMEN MOTA		GIDABAIMEN MOTA	
	GUZTIRA	B	GUZTIRA	B	GUZTIRA	B	GUZTIRA	B	GUZTIRA	B
ARRASATE (*)	9/47	9/47	44	44	37	37	30	30	5	5
LENIZ	84	67	96	71	84	58	96	69	52	33
PEÑAKOBA	24	10	29	20	17	14	24	20	14	13
TELLERIA	35	29	38	36	22	22	20	20	18	18
GUZTIRA	190	153	207	171	160	131	170	139	89	69

Iturria: DGT. Gipuzkoako Probintziako Trafiko Buruzagitza

2017: Azaroaren 29 arteko datuak

(*) Guztira gai izan diren 47 gidabaimenetatik 9 autoeskolako egungo titularrarenak dira.

²¹ LENIZ autoeskolaren langile-kopurua aldatu egin da Alegazioak IV. ataleko, Gertaerak zehazteko pleguko akatsak 7. puntuan xedatutakoaren arabera.



Jaulkitako gidabaimen guztien % 81 B motakoa da.

66. ARRASATE autoeskolak B gidabaimenarekin zirkulatzeko gai direnak bakarrik ditu, DGTk emandako informazioaren arabera. Gainerako autoeskolek hainbat motatako gidabaimenak eskuratzeko prestakuntza eman dute eta ikasleek horiek lortzeko azterketak egin dituzte.

67. Hurrengo taulan Arrasateko autoeskolek eskaintzen dituzten gidabaimenak biltzen dira. Ilunago, benetan zirkulaziorako gai direnak adierazten dira, DGTk emandako informazioaren arabera.

ARRASATEKO AUTOESKOLETAN ESKAINTZEN DIREN GIDABAIMENAK 2013-2017									
AUTOESKOLA	GIDABAIMEN MOTA								
ARRASATE	B								
LENIZ	B	AM	A1	A2	EB	B96	C	EC	D
PEÑAKOBA	B		A1	A2	EB	B96	C	EC	
TELLERIA	B			A2					

Iturria: DGT. Gipuzkoako Probintziako Trafiko Buruzagitza eta autoeskolek emandako informazioa
Ilunago, benetan zirkulaziorako gai direnak

V. AUTOESKOLEN ALEGAZIOAK

1. Prezioak lehiari egokitzea

68. LENIZ eta PEÑAKOBA autoeskolek egindako alegazioen arabera, ez dago jarduera hitzarturik autoeskolen artean, jardun hori ez dea egiaztatu eta sektoreko lehiakideen jarduerara egokitzapen adimentsu bat egon zitekeen.

Bestalde, TELLERIA autoeskolak aitortzen du beste autoeskolekin alderatutako tarifak edo horien antzekoak aplikatu dituela, duen negozio-bolumen eskasagatik. Gainera, gehitu du ezin daitekeela ondorioztatu merkatuan nagusitasuna duenik, baizik eta kontrara, *bere tarifak lehia nagusiak adierazitako prezioen arabera finkatzera behartuta dagoela.*

Ebazpen-proposamenaren ostean egindako alegazio hauetan TELLERIA proposamenarekin ados agertu da, baina adierazi du LEAK kontuan hartu beharko lukeela prezioak jaisteak zerbitzuaren kalitatea kaskartu dezakeela.

69. Autoeskolek aipatutako Auzitegi Nazionalaren 2005eko azaroaren 25eko epaiari buruz - horren bidez baliogabetu egin zen 2003ko martxoaren 4ko ebazpena, Cosladako autoeskolena, Lehiaren Defentsarako Auzitegia zenak



emandakoa-. Bertan, autoeskolek aplikatzen zituzten tarifak beste lehiakideen jardunbidera egindako egokitzapen adimentsuagatik gerta daitekeela argudiatzen zen. Baina adierazi behar dugu, epaitutako kasuan esandakoa ezin daitekeela orain aztertzen ari garen kasuan erabili. Lehenengo kasuan, matrikularen eta eskola praktikoaren ordua bakarrik zetorren bat bost autoeskoletan behin bakarrik, eta lau autoeskoletan bi aldiz, hamabost hilabetetan zehar aztertu ziren Madrilgo Autonomia Erkidegoko laurogei autoeskola baino gehiagoren prezioekin alderatuta. Hilabete horietan prezioak etengabe aldatu ziren.

Esku artean daukagun kasuan, aldiz, merkatu adierazgarriaren barruan dauden autoeskola guztiak 2013 eta 2017 urteen bitartean B motako gidabaimena osatzen duten kontzeptuetan prezio berdinak edukitzeagatik inputatuak izan dira.

70. Bestalde, ezin da onartu TELLERIA autoeskolak egindako alegazioa, bere prezioak lehiak ezartzen dituen prezioen arabera ezarri behar dituela adierazten duena. Izan ere, prezioa lehiakideen artean bereizteko alderdi garrantzitsu bat da. Autoeskolak prezioaren bidez gainontzeko lehiakideengandik desberdintzea erabaki balu, eta bere prezioak jaitsi balitu, hain zuzen, ikasle-kopuruak gora egingo luke, eta baita mozkinak ere.

Horren harira, esan behar da Lehia Defendatzeko Legearen 1. artikulua debekatu egiten dituela lehiaren aurkako akordioak zein hitzartutako jokabideak edo nahita paraleloak, eta beraz, erabat debekatuta dago prezioak lehiakideenekin berdindu edo bateratzeko asmoz nahita egindako edozein jardunbide.

2. Merkatuaren gardentasuna

71. PEÑAKOBA eta LENIZ autoeskolek prezioen balizko hitzarmena azaltzeko beste azalpen bat badagoela adierazten dute. Autoeskola horiek adierazitakoaren arabera, Arrasate oso udalerrri txikia denez, gardentasun-maila handia dago sektorean, ikasle potentzialek internet bidez sare sozialetara eta informaziora egun duten sarbidearen ondorioz, autoeskola guztien prezioak erraz-erraz egiazta baitaitezke autoeskolen web-orrien bidez. Horregatik prezioak jendeak ikusteko moduan daudela diote eta ikasleek zein autoeskolek ikus ditzaketela.

72. Autoeskolen web-orriaren bidez prezioak argitaratu eta ikusteari buruz adierazitakoa, alegazio-egileek ez dute frogatu. Ez PEÑAKOBA autoeskolak, ez LENIZ autoeskolak ez dute adierazpen hori egiaztatzen duen agiri edo informaziorik aurkeztu. Dena den, espedientearen instrukzioan zehar,



instruktoareak inputatutako lau autoeskolei buruz interneten zegoen informazioa egiaztatu zuen eta ondorioztatu zuen autoeskolek ez dutela tarifarik argitaratzen bitarteko horren bidez. Berez, egiaztatu zen autoeskola batzuek ez zutela web-orririk ere, eta PEÑAKOBA autoeskolari dagokionez, web-orria baduen arren, ez dituela prezioak bertan argitaratzen.

73. LENIZ autoeskolak, baieztapen hori egiten duen autoeskoletariko batek, ez du web-orririk. Baina interneteko nabigatzaileen bidez egindako bilaketari esker honako web-helbide hau aurki daiteke: <http://www.autoeskolaleniz.com/>, ezin daiteke orri horretara sartu. Beraz, ezin daitezke web-orriaren bidez autoeskolaren prezioak edo beste edozein informazio ikusi.

PEÑAKOBA autoeskolak badu web-helbidea: <http://penakobautoeskola.negocio.site/>, baina ematen duen informazioa ez da prezioei buruzkoa, kokapenaren, ordutegiaren eta harremanetan jartzeko moduaren berri bakarrik ematen du.

ARRASATE autoeskolari dagokionez, web-helbidea baduela egiaztatu daiteke, eta horren bidez gailu adimentsuen laguntzaz testak egin daitezke, <http://www.50test.com/arrasate/>, baina orri horretan ez dago preziorik jendeak ikusteko moduan.

TELLERIA autoeskolak ez dauka web-orririk.

Beraz, ondorioztatu daiteke, web-orriaren bidez prezioak erraz ikusteari eta prezioen gardentasunari buruz esandakoa ez dela egia, autoeskola bakar batek ere ez baititu bere prezioak internet bidez argitaratzen²².

3. Jokabidearen ondoreak

74. LENIZ zein PEÑAKOBA autoeskolek aitortzen dute *prezioak berdinak direla 2013. urtetik 2017 urtera bitartean*. Prezioak ez dira igo bost urte horietan, eta beraz beren iritziz balizko jardunbide hitzartuak ez luke ondoriorik izango merkatuan.

75. Autoeskolek alegatutako jardunbide horrek merkatuan izango lukeen balizko ondoriorik ezari dagokionez, esan behar da, Lehia Defendatzeko Legearen 1.1. artikulua ezarritakoaren arabera, debekatuta daudela lehia murriztu edo faltsutzea «xedetzat» duten edo «izan dezaketan» jokabideak. Jardunbide hitzartuak edo nahita paraleloak manu horren barnean biltzen dira, eta hortaz, arau-haustetzat hartzeko ez da frogatu behar benetan ondoreak izan dituztela.

²² Interneteko kontsultak hainbat datatan egin ziren, azkena 2018ko martxoaren 14an.



Hala, autoeskolek bat datozen prezioak ezartzea lehiaren aurkako jardunbidea izango litzateke *per se*, edo xedeagatik. Hori egiaztatzeko, beraz, ez da beharrezkoa administrazioak egiaztatzea lehian benetako kaltea izan dela jokabide hori zehatzeko, jokabide hori larria baita berez.

Horren harira jardun dira hala Europako jurisprudentzia nola Espainiakoa. Jurisprudentziak dioenez, lehia mugatzeko era jakin batzuk, beren xedeagatik, kaltegarritzat har daitezke beren izaera dela-eta lehiaren ohiko jokoaren jardun onerako.

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak, C-226/11 auzian emandako epaian, honako hau adierazten du: «Justizia Auzitegiak xedatu du “xedeagatiko arau-hausteen” eta “efektuagatiko arau-hausteen” arteko bereizketa dela enpresen arteko kolusio era jakin batzuk, izaeragatik beragatik, lehiaren ohiko jokoaren jardura onerako kaltegarritzat har daitezkeela»²³.

Geroago, EBJAk 2016ko urtarrilaren 20an C-373/14 auzian emandako epaian²⁴:

"(...) debekuaren pean erortzeko (...) erabaki batek «xede edo efektutzat» eduki behar du merkatu erkidearen barruan lehiaren jokoa eragozte, mugatzea edo faltsutzea. (...) baldintza horren ordezkio izaeragatik, «edo» juntagailuak adierazten duen moduan, erabakiaren xedea bera hartu behar da kontuan lehenik (...). Hala bada, erabaki batek lehian izandako eraginak aztertu beharrik ez dago egiaztatuta badago haren xedea lehiaren aurkakoa dela".

Auzitegi Gorenak (AG) bat egin du Europako jurisprudentziarekin, eta hura aipatu du 2015eko abenduaren 9ko epaian²⁵:

"(...) xedeagatiko arau-haustea dagoela jotzeko zantzu nahikorik ez dagoenean baino ez da eskatzen erabaki baten lehiaren aurkako efektu zehatzak egiaztatzeko. Dena delako erabaki horrek lehiaren aurkako xedea duela egiaztatuta gelditzen denean, ordeza, ez dira egiaztatu behar erabaki horrek lehiaren gainean eta, ondorioz, aplikatzen den merkatuaren gainean zehazki zer eragin kaltegarri dituen. Halakoetan aski da azaltzea erabaki horrek lehiaren jokoa barne-merkatuan eragotzi, mugatu edo faltsutu ahal duela".

Auzitegi Nazionalak (AN) horri buruz ere hitz egin du 294/2016 epaian. Horretan EBJAk C-8/08 T-Mobile auzian 2009ko ekainaren 4an eman zuen epaia aipatu du, xedeagatiko eta efektuagatiko arau-hausteen arteko

²³ Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren epaia, 2012ko abenduaren 13koa, C-226/11 auzian. Zentzu berean, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren epaiak, 2008ko azaroaren 20koak, C-209/07 auzia, Beef Industry Development Society eta Barry Brothers, eta 2009ko ekainaren 4koa, C-8/08 auzia, T-Mobile Netherlands BV.

²⁴ EBJAren epaia, 2016ko urtarrilaren 20koa, C-373/14 P auzia, Toshiba Corporation c. Europako Batzordea.

²⁵ Auzitegi Gorenaren epaia, 2015eko abenduaren 9koa. Administrazioarekiko Auzien Sala. 3. sekzioa. 978/2014 kasazio-errekurtsoa.



bereizketaren jurisprudentzia-tratamenduaz aritzen dena, eta nabarmendu du arau-haustea xedeagatik izango dela jokabidea, bere izaera dela eta, kaltegarria bada lehia askearen jardura onerako, horri buruzko adibide klasikoa prezioak finkatzeko akordioak izanik, horiek zuzenean edo zeharka egiten dituztela. Beraz, hitzartutako praktika baten eraginak aztertu beharrik ez da egongo egiaztatuta gelditzen bada haren xedea lehiaren aurkakoa dela²⁶.

Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak zein lehiaren gainerako agintariak bestela ezin zenez, ebazpenetan aipatutako jurisprudentzia jarraitzen dute²⁷.

76. Esku artean dugun kasu honetan, egiaztatuta geratu da, jardunbidea lehiaren kontrakoa dela, eta, hain zuzen ere, lehiarako kaltegarria denez, ez da beharrezkoa egiaztatzea jokabide horrek lehiaren gainean dituen ondorio kaltegarri zehatzak. Ondorioz, alegazioak ezin du aurrera egin.

77. Bestalde, alegazioa arau-hauste motan sartzeko beharrezkoa ez izan arren, ezin daiteke ondorioztatu jokabideak merkaturan eraginik eduki ez duenik, izan ere, hitzarmen edo jokabide horren ondorioa eraginpeko merkaturan prezioen lehia kentzea izan da, aztertu den aldian zehar autoeskolek ezarri dituzten prezioak bat etorri baitira. Autoeskola batek esandakoaren kontrara, aldaketarik egon ez izanak ez du esan nahi ez duela eraginik izan, baizik eta, produktua edo zerbitzua eskaintzerakoan lehiaren faktore nagusia dena ezabatu dela: prezioa.

78. Prezioan dagoen lehia-ezaz gain, egiaztatuta geratu den bezala, beste efektu bat da B gidabaimena eskuratzeagatik ordaindu behar diren prezioak askoz ere handiagoak direla Arrasateko autoeskoletan, Gipuzkoako beste udalerri batzuetan, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Estatuko gainerako autonomia-erkidegoetan baino.

²⁶ Auzitegi Nazionalaren 294/2016 epaia, 2016ko uztailaren 15ekoa (Administrazioarekiko Auzien Sala, 6. sekzioa, 293/2012 errekurtsua).

²⁷ MERKATUEN ETA LEHIAREN BATZORDE NAZIONALA, S/DC/0560/15 espedientearen ebazpena GUADALAJARAKO ABOKATUEN ELKARGOA 2. 2016. Web-orria: https://www.cnmc.es/sites/default/files/1493570_1.pdf:

"Sala hau ezin da bat etorri Guadalajarako Abokatuen Elkargoaren (ICAGU) iritziarekin, ez baita Lehia Defendatzeko Legearen 1. artikulua eragindako arau-haustea, manu horren xedeagatik arau-haustea baizik. Eta arau-hauste mota horiei buruz, Espainiako lehiaren arloko hainbat agintaririk defendatu dute, eta jurisprudentziak hala ziurtatu du, ez duela zertan merkaturan ondorerik eragin behar kalifikazio juridikorako. Nahikoa da, beraz, eragiteko gaitasuna izatearekin."



4. Aurreko jabearen tarifei eustea.

79. ARRASATE autoeskolaren esanetan, 2013. urtean autoeskola erosi zuenean, aurreko jabeak aplikatzen ari zen prezioak adierazi zizkion, eta prezio horiek analista batek finkatu zituela esan zion, merkatua aztertu ostean. Berak prezio horiek aplikatzen baino ez zuela jarraitu, gutxienez 2010etik erabiltzen zirela prezio horiek eta krisialdiagatik eta kanpoko beste alderdi batzuegatik zeuden bezala utzi besterik ez zuela egin prezioak igo orde. Tarifen finkapenean berak ez duela esku hartu adierazi du behin eta berriz.

80. Horri dagokionez, esan behar da, hain zuzen, autoeskola horren titulartasuna 2013. urtean aldatu zela, zehazki 2013ko martxoan. ARRASATE autoeskolako egungo jabeak, ROBERTO LARRAS ÍPÉREZek, Ikerketa Zuzendaritzak eskatuta, 2013an ARRASATE autoeskolak jaulkitako faktura guztiak bidali zituen, baina guzti-guztiak bidali zituen, bai aurreko jabeak jaulkitakoak, bai berak jaulkitakoak.

Ikerketa Zuzendaritzak egiaztatu ahal izan zuen bezala, egungo jabeak aplikaturako prezioak lehengoak aplikatzen zituenaren berberak dira. Dena den, baldintza horrek ez du bere jokabidearen erantzukizunetik salbuesten. Egoera hau kontuan hartu zen eta gertaerak zehazteko plegua aldatu zen, 2013an egungo jabeak jaulkitako faktura-kopurua aldatuz, beraz, ezin zaizkio egotzi berak burutu ez dituen jardueren erantzukizunak. Hala ere, inolaz ere ez da onargarria, bere negozioa eskuratu zuenean adierazi zioten tarifa ezartzen jarraitzea, lehiatzeari eta merkataritza-politika independentea garatzeari uko eginez. Gainera, jardunbide horri urte bat baino gehiagoan eutsi zaio, eta horrek azalpen bakarra du: jardunbide hitzartua edo nahita paraleloa burutzea.

5. Autoeskolen ezaugarri desberdinak

81. LENIZ zein PEÑAKOBA autoeskolen esanetan, egia da, gertaerak zehazteko pleguan adierazten den bezala, autoeskolek ezaugarri desberdinak dituztela, *eta datu horrek, instruktoreak ondorioztatzen duenaren kontrara, frogatzen du autoeskola bakoitzak eskola praktikoen prezioa bere gain hartu ahal izateko arriskua hartzen duela bere gain, horrek ekar diezazkioken gastuak kontuan hartu gabe.*

LENIZ autoeskolak zehazki beste autoeskoletatik bereizten duten ezaugarriak azpimarratzen ditu, eta ezaugarri horiek ez dira gertaerak zehazteko pleguan zehazten (euskaraz eta gaztelaniaz banakako irakaskuntza; 60 minutuko praktikak ikaslea bere bizitokian hartu eta utzita; autoeskolak dituzten mugakide diren herrietako ikasle asko; askotariko ibilgailuak: eskuzkoak, automatikoak eta gama altukoak).



82. Alegazio horrek ez du aurrera egin behar. Espedientea ireki zaien autoeskolen gastuen egiturak desberdinak dira, eta beraz, ezin da ulertu beren zerbitzuen prezioak berdinak izatea. Hain zuzen ere, LENIZ autoeskolak aipatzen dituen zerbitzua bereizteko ezaugarri horiek, gastuen egitura eta negozio-eredu desberdinekin batera, prezio desberdinak eragiten dituzte, behin eta berriz adierazi dugun jurisprudentziak baieztatu duen moduan. Gastuak ez dira prezioa zehazteko kontuan hartu behar den alderdi bakarra, badaude kontuan hartu behar diren beste alderdi garrantzitsu batzuk: lortu nahi dugun mozkin-marjina, zerbitzuaren eskaria, enpresaren biziraupen-, hazkunde- edo lidergo-helburua, eskaintzen duen zerbitzuaren ezaugarri bereizgarriak, marka desberdintzea, etab. Horregatik guztiagatik prezioak desberdinak izan beharko lirateke.

6. Gomendio kolektiboa

83. LENIZ zein PEÑAKOBA autoeskolek adierazten dutenez, *B gidabaimena eskuratzeko zirkulazioko eskola praktikoen tarifak antzekoak izateko arrazoia ez da gomendio kolektiboa egotea, baizik eta autoeskola bakoitzaren egokitzapen adimentsua bere lehiakideen jardunbidera*. Halaber, argudiatzen dutenez, *badaude ordezeko beste arrazoi logiko batzuk sektoreko prezioen homogeneotasuna azaltzen dutenak (...) horrek euren artean hitzarmena edo Elkartearen gomendioa egon dela ondorioztatu beharrik gabe*.

84. Aldeek aipatutako elkarteak gomendio kolektiboa bat egin duela autoeskolek ukatzeari buruz, esan behar da, gertaerak zehazteko pleguan inoiz ez dela aipatu gomendio kolektiborik, eta are gutxiago elkarteren batek egindakoa, eta beraz ez da egokia alegazio horri erantzutea.

Egokitzapen adimentsuari buruzko alegazioari dagoeneko aurka egin zaio Alegazioen 1. atalean.

VI. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1. Ebazteko eskumena

85. LDLren 53. artikulua honako hau ezartzen du:

1. Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluaren ebazpenek ondorengoa adieraziko dute:

a) Lege honetan edo Europako Erkidegoaren Tratatuaren 81. eta 82. artikuluetan debekatutako jokatutako direla. (...)



2. Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluaren ebazpenek ondorengo edukiko dute:
(...)

d) Isunak jarriko dituzte.

86. Bestalde, 1/2012 Legeak, otsailaren 2koak, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzkoak, honako hau ezartzen du:

3. artikulua Eskumenak:

1.- Lehiaren Euskal Agintaritzak, bere xedeak betetzeko, eskumen hauek izango ditu: zehatzea; sustatzea; aurkaratzea; irizpen eta kontsulta ematea, eta arbitratzea.

2.- Lehiaren Euskal Agentziak zehatzeko prozedurak hasi, izapidetu eta ebatziko ditu lehia murrizten duten jokabideak xedetzat hartuta (hala nola kolusiozko jokaerak, nagusitasunaren agintekeria eta lehia askea faltsutzea interes publikoari eragiten dioten ekintza desleialengatik), lehia defendatzeko araudiak xedatzen duen bezala. Lehiaren Euskal Agintaritzak eskumen hori erabiliz honako hau egin dezake:

a) zehatzeko isunak ezarri lehia defendatzeko legeria urratzeagatik.

10. artikulua.- Lehiaren Euskal Kontseiluaren eginkizunak.

Lehiaren Euskal Kontseiluaren eginkizunak honako hauek dira:

a) zehatzeko prozedurak ebatzea

87. 2016ko martxoaren 18an, antzemandako jokabideak azaltzen zituen ohar laburra igorri zion LEAk Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionaleko (MLBN) Lehiaren Zuzendaritzari, 1/2002 Legearen (Estatuak eta autonomia-erkidegoek lehiaren defentsaren arloan dituzten eskumenen koordinazioari buruzkoa) 2.1 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, eta LEAk jokabideak aztertzeko eskumena zuela adierazi zuen ohar hartan. 2016ko martxoaren 29an, MLBNren ofizioa jaso zen, non, jasotako proposamenari jarraikiz, gertaera jakin horiek aztertu eta ebatzeko eskumena LEAri dagokola jotzen du. Gainera, zehapen-espediente bat hasiz gero MLBNen Lehiaren Zuzendaritza alderdi interesdun gisa onartzeko eskatzen dute.

88. Ondorioz, zehapen-prozedura hau ebatzeko eskumena Lehiaren Euskal Kontseiluari dagokio.

2. Egitateak kalifikatzea

89. Lehia Defendatzeko Legearen 1. artikuluko 1. apartatuak honako hau ezartzen du:

Debekatuta dago taldeko akordio, erabaki edo gomendio oro, edo hitzartutako praktika edo nahita paraleloa den jarduera oro, horien helburua hau bada edo izan badaiteke: merkatu nazional osoan edo zati batean lehia eragotzi, murriztu edo faltsutzea; bereziki akordio edo erabaki mota hauek egongo dira debekatuta:



a) Salneurriak edo beste merkataritza- edo zerbitzu-baldintza batzuk zuzenean edo zeharka finkatzea.

90. Espediente honetan egindako azterketatik, ondoriozta daiteke, espedientea ireki zaien lau autoeskolek B gidabaimena eskuratzeko ezarritako prezioa berdin-berdina izan dela 2013tik 2017ra bitarteko aldian. Autoeskola arau-hausleek bat zetozen tarifak aplikatu dituzte, zenbateko osoan, zein B motako gidabaimena eskuratzeko irakaskuntza osatzen duten kontzeptu banakatuetan.

Tarifak bat etortzea espedientea ireki zaien autoeskolen arteko lehiaren aurkako jardunbideari bakarrik egotz dakioke, autoeskolek gastuen egitura desberdina dutenez, prezio-politika desberdinak eragin beharko bailituzke.

Enpresa baten gastuen egiturak zehazten du enpresak zerbitzuak eskaintzen dituen merkatuan lehiakorra izateko duen gaitasuna, bere lehiakideekin alderatuta. Halaber, enpresak baldintzatzen ditu beren produktu edo zerbitzuen prezioak ezartzerakoan. Horregatik gastuen egitura berdina batzuk eta onura-igurikimen berdina batzuk bakarrik eragingo lukete prezio berdina edo berdintsua.

Agerikoa da, egindako azterketa ikusita (langileak, ibilgailuak eta lokalak) kostu-aldagaiak desberdinak izan arren, autoeskolek ezarritako tarifak guztiz bat datozela.

3. Tipikotasuna.

91. Europako Justizia Auzitegiak **jarduera hitzartu** deitu zion enpresen arteko koordinazio mota bati, berariazko akordiorik gabe gauzatu arren, lehiaren arriskua elkarren arteko lankidetzaren bidez jakinaren gainean ordezkatzeko dituenari, hain zuzen²⁸.

Lehiaren Defentsarako Auzitegia zenak praktika hitzartu deitu zion lehiaren kontrako jokabide irizten zion merkatuko lehia-baldintzek edo -egiturek modu naturalean azaldu ezin dituzten jokabide berdinei, bide ematen baitute operadore ekonomikoen artean espresuki frogatu ezin daitezkeen isilbidezko akordioak edo koordinazio-moduak daudela pentsatzeko²⁹.

Europako ondorengo epaiek jarduera hitzartuei buruzko iritzi hau indartu dute eraginpeko enpresen arteko koordinazio-modu praktikoa eskatzen dutela defendatuz, euren artean akordio formal bat lortu gabe, benetako lehiaren

²⁸ Europako Justizia Auzitegiaren epaia, 1972ko uztailaren 14koa, 48/69 auzia, Imperial Chemical Industries Ltd. enpresarena.

²⁹ Lehiaren Defentsarako Auzitegiaren ebazpena, 1999ko apirilaren 15ekoa, Azukreei buruzkoa.



arriskuak deuseztatzen dituen eta parte-hartzaileak jarduten duten merkatuko baldintza arruntekin bat ez datozen lehia-baldintzetan kokatzen ditu³⁰.

Europar Batasuneko jurisprudentziaren arabera, bi oinarritzko osagai egon behar dira jarduera hitzartua dagoela zehaztu ahal izateko: batetik, osagai material bat, hau da, bi edo enpresa gehiagoren lehiaren aurkako jarduera merkatuan, eta bestetik, izaera subjektiboa edo nahitakoa duen osagaia, hots, parte hartzen duten enpresen arteko lankidetzak- edo koordinazio-jokabidea.

92. Bestalde, doktrinaren arabera, **nahitako jokabide paraleloak** dira operadore ekonomiko batzuek, elkarren arteko akordiorik edo itunik gabe, aldebakartasunez baina modu bateratuan, bere jokabidea beste lehiakide batenera edo batzuenera egokitzeko gauzatutako jokabide mugatzaileak dira, norgehiagoka ekiditea xede dutenak³¹.

Beraz, jokabide horiek hiru osagai dituzte: jokabide-berdintasuna, berdintasun horren nahitakotasuna eta lehiaren aurkako helburua edo emaitza. Ezaugarri horiekin eratu da kontzeptua, Lehiaren Defentsarako Auzitegiaren jokabidearen bidez³².

Kasu honetan, erabat betetzen dira osagai guzti horiek: espedientea ireki zaien autoeskolek modu berberean jarduten dute B motako gidabaimena eskuratzeko irakaskuntza eskaintzeagatik jarri dituzten tarifei dagokienez, jakin badakite prezioak besterendu dituztela, eta horren emaitza euren artean lehiatzeari uko egitea da, kontsumitzaileen kaltetan.

Nahitako jokabide paraleloena figura anbigua da, eta oso gertu dago jokabide hitzartu izatetik, Henkel Ibéricaren kasuko ebazpenean argi geratu zenez; Lehiaren Defentsarako Auzitegiak bi figura horiek **lankidetzak-jokabide** izenarekin batu zituen, honela definituta: parte-hartzaileen jokabideak azaleratzen duen koordinazio mota, derrigortasun juridikorik gabekoa izan daitekeena, parte-hartzaileek modu bateratuan jarduteko borondate soila,

³⁰ Europako Justizia Auzitegiaren epaiak, 2009ko ekainaren 4koak, C-8/08 auzia, T-Mobile Netherlands BV, KPN Mobile NV, Orange Nederland NV eta Raad van bestuur van de Nederlandse Mededingingsautoriteit; eta 2013ko abenduaren 5ekoa, C-449/11 P auzia, Solvay Solexis SpA/Batzordea.

³¹ NAVARRO SUAY, M., «Las conductas conscientemente paralelas: revalorización del concepto», *Gaceta de la UE y de la Competencia*, 232 zk., 2004ko uztaila-abuztua, 54. or.

³² Lehiaren Defentsarako Auzitegiaren Ebazpenak; 1986ko ekainaren 18koa, Española de Zinc enpresarena; eta 1987ko urtarrilaren 9koa, Asturiana de Zinc enpresarena.



gentlemen's agreements-ak, jakinaren gainean jarduera koordinatura heltzeko aukera ematen dien informazioa trukatzeari, etab.³³

Halaber, Lehiaren Defentsarako Auzitegiak, lider barometrikoaren teoriari aipamen egin eta gero, honakoa adierazi zuen: "operadore-talde batek geroago egingo balu bat gainerakoaren tarifa-berdintasunarekin, jokabide horri nahitako jokabide paralelo deitu ahalko litzaioke"³⁴.

93. Agerian jarri den bezala, jokabide hitzartuaren eta nahita paraleloen kontzeptuak batzuetan gainjarri daitezkeen edo bereizteko zailak izan daitezkeen kontzeptuak dira. Ondorioz, jokabide bat kategoriatan batean edo bestean sartzea ez da alderdirik garrantzitsuena Lehia Defendatzeko Legearen 1. artikulua aplikatzearen ondoreetarako.

Ondorioz, Lehiaren Defentsarako Auzitegiak adierazitakoarekin bat etorritik, "1. artikulua aplikatu behar zaio kolusio-jokabide orori, edozein dela ere gauzatu den modua (akordioak, talde-erabaki edo gomendioak edo jokabide hitzartuak edo nahita paraleloak), eta beraz ezin daiteke alegatu jokabide hitzartua edo nahita paraleloa gertatu zela zehaztu ez zenik, horrek ez baitu garrantzirik espedientearen ebazterakoan".

Era berean, Auzitegi Gorenak garrantzia kendu dio jokabide arau-hauslea kategoriatan zehatz batean sartzeari, eta adierazi du ez duela garrantzirik jokabide bat akordio, jardunbide hitzartua edo nahita paralelotzat jotzea inputatuen defentsa-eskubideen ondoreetarako, eta ez da babesgabetasuntzat hartuko egozpenaren titulua aldatzea³⁵.

Bestalde, ezin daiteke esan epaia eman duen salak egozpenaren titulua aldatu duenik, auzi-jartzaileari babesgabetasuna eraginez, zioan, argi adierazi ez arren, iradokitzen duen moduan. Izan ere, salak bilerak egon direla eta bilera horietan produktuei buruzko informazioa trukatu dela baino ez du azpimarratzen, eta ondoren billeteak jaulkitzeagatik karguak adierazten ditu. Horregatik uste du, "ezinbestekoa dela ondorioztatzea isilbidezko akordio bat edo jokabide nahita paralelo bat egon dela —tasa arau-hauslea ezartzeko orduan berdina dio—"; horrek ez du esan nahi Lehiaren Defentsarako Auzitegiak burututako egitateen kalifikazioa —inputatutako alderdien artean lehiaren aurkako akordioak egotea— ezeztatzen denik, baizik eta nabarmendu egiten da, akordiorik gabe ere, lehiaren aurkako jokabidea egongo litzatekeela. Beraz, ondorio bakarra da, auzialdi salarentzako errekurtsogileak ez duela indargabetu jokabide arau-hauslearen gauzapena, ezin bailitzateke hala izan, egitateen artean ez

³³ Lehiaren Defentsarako Auzitegiaren Ebazpena, 1992ko martxoaren 6koa, 306/91 Espedientearen, FD 5., Henkel Ibéricarena.1.

³⁴ Lehiaren Defentsarako Auzitegiaren Ebazpena, 2001eko ekainaren 4koa, 492/00 Espedientearen, FD 2., Hormigón de Girona enpresarena.

³⁵ Auzitegi Gorenaren epaia, 2011ko otsailaren 1ekoa, 2688/2008 errekurtsoa.



baitago kontrakotasunik eta beren kontzeptualizazioan bakarrik baitago desadostasuna. Eta sala hau bat dator errekurritutako epaiarekin. Bertan, bilerak egiten direla eta datu ekonomikoak partekatzen direla jasotzen denez, eta ondoren billeteak jaulkitzeagatik karguak adierazten dituenek, Lehiaren Defentsarako Auzitegiak zehatutako jokabidea benetan gertatu zela ondorioztatu behar da.

94. Adierazitakoa kontuan hartuta, Lehiaren Euskal Kontseiluaren ustez, B motako gidabaimena eskuratzeko eskolak emateagatik prezio berdinak ezartzea lehia librearen aurkako jardunbidea da, eta Lehia Defendatzeko Legearen 1.1 a) artikuluan jasotako arau-haustearekin lotuta dago.

4. Presuntzio-froga

95. B motako gidabaimena eskuratzeko prezioak finkatzeagatik inputatutako autoeskolen arteko hitzarmena egon izanaren zuzeneko probarik ez dagoenez, presuntzio-frogara jo behar dugu.

96. Zehapen-prozeduran presuntzio-froga aplikatzea bat dator Konstituzio Auzitegiak eta Auzitegi Gorenak behin eta berriz ezarritako doktrinarekin³⁶. Era berean, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak honakoa adierazi du: «Froga hori ondoriozta daiteke inferentzia aski sendoa, argi eta zentzu berekoak badaude edo kontra egin gabeko izatezko presuntzio antzekoak badaude»³⁷.

Era berean, Lehiaren Defentsarako Auzitegi eta Lehiaren Batzorde Nazional ohiek antzeko adierazpenak egin dituzte³⁸. Esaterako, 395/94 espedientearen ebazpenean adierazitako argudioa:

Lehiako prozeduretan ohikoa da presuntzio-frogara jotzea arau-haustea egiaztatzeko, batez ere kolusio-jokabideen kasuan; izan ere, enpresek elkarren arteko akordioen

³⁶ Konstituzio Auzitegiaren 174/85 eta 175/85 epaiak, abenduaren 17koak, 150/1987 epaia, urriaren 1ekoa, 157/98 epaia, uztailaren 13koa eta 63/2007 epaia, martxoaren 27koa. Auzitegi Gorenaren epaia, 1985eko uztailaren 26koa, 1986ko azaroaren 18koa, 2000ko martxoaren 6koa eta 2002ko uztailaren 15koa; eta Europako Justizia Auzitegiaren epaia, 1993ko martxoak 31koa, zur-orearena, As. C-89/85.

³⁷ Irlanda Erresuma Batuen aurka, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren Epaia, 1978ko urtarrilaren 18koa, §161. Angelova Bulgariaren aurka, 38361/97 errekurtsioa, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren 2002ko ekainaren 13ko epaia; Tahsin Acar Turkiaren aurka, 26307/95 errekurtsioa, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren 2004ko apirilaren 8ko epaia; Nachova eta beste batzuk Bulgariaren aurka, 43577/98 eta 43579/98 errekurtsioak, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren 2005eko uztailaren 6ko Epaia; Virabyan Armeniaren aurka, 40094/05 errekurtsioa, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren 2012ko urriaren 2ko epaia.

³⁸ Ebazpenak, 1988ko uztailaren 4koa eta 13koa, urriaren 25ekoa eta azaroaren 2koa, 1990eko uztailaren 12koa, 1992ko uztailaren 8koa eta beste ebazpen batzuk. Era berean, Auzitegi Nazionalaren epaia, 2013ko urtarrilaren 4koa.



zuzeneko frogarik uzten ez duten arren, emaitzak akordio horiei zor zaizkiela ondorioztatu daiteke³⁹.

Lehiaren Euskal Kontseiluak hainbat ebazpen eman ditu presuntzio-froga oinarritzat hartuta⁴⁰.

97. Presuntzio-frogaren doktrinan ezinbestekoa da hiru baldintza betetzea, presuntzio-frogak errugabetasun-presuntzioaren kontra ez egoteko. Lehenengoa, oinarritzko egitateek euskarri dituzten zantzuak erabat frogatuta egotea da, susmo hutsak izan ez daitezen. Bigarrena jokabide arau-hauslearen zantzuen eta egitateen arteko kausazko lotura aski arrazoitzea da. Azkenik, egitateak azaltzen dituen ordezkko arrazoirik balego, aztertu egingo dira eta ukatzearen zergatia adieraziko da.

Beraz, bidezkoa da kasu honetan zergatik betetzen diren baldintza horiek adieraztea.

98. Argi dagoen gauza da B motako gidabaimena eskuratzeko Arrasateko lau autoeskolek ezarri dituzten prezioak bat datozela. Espedienteaz izapidetzerakoan, behar bezala frogatuta geratu da bat-etortze hori. Batetik, gure eskuetan dauzkagu autoeskolek jakinarazitako tarifak eta lkerketa Zuzendaritzak eskatuta emandako fakturak, eta denak behar bezala aztertu ziren; bestetik, autoeskolek ez dute aurka egin, are gehiago, aitortu egin dute. Gertaera goriak espedienteaz eragin duen jokabide arau-hauslea egotearen zantzutzat balio duten oinarritzko egitateen froga dira.

Gainera, autoeskolen gastuen egitura aztertu da, eta desberdinak direla frogatu da. Gastuen egituretan eta aztertutako ratioetan dauden desberdintasunak eta zerbitzua desberdintzeko aldagaiak egiaztatuta, ezin da arrazoizkotzat jo espedienteak barne hartutako autoeskolen tarifetan dagoen antzekotasuna. Autoeskolek prezio berbera aplikatzea erabakitzen dute, jakinaren gainean autoeskola bakoitzak bere gain hartzen dituen kostuak kontuan hartu gabe. Horrek, hain zuzen, hitzartutako prezioa aplikatzeko autoeskolen titularrek daukaten nahia agerian uzten du.

Gaia sakonduz, hitzarmenaren ordezkko arrazoirik ezin litekeela egon argi uzteko, Arrasateko autoeskoletako prezioak alderatu dira Gipuzkoako beste udalerrietakoekin EAEkoekin eta Estatuko prezioekin. Paradoxikoki, prezioa beti da garestiagoa Arrasaten, eta nabarmenezkoa da Gipuzkoako beste

³⁹ Lehiaren Defentsarako Auzitegia, 1998ko irailaren 30ekoa, gripearen aurkako txertoena, 395/94 Espedienteaz.

⁴⁰ Ebazpena, Lehiaren Euskal Agintaritzarena, 2013ko maiatzaren 21ekoa, 05/2012 Espedientearena, Pinosoloko lehiaketari buruzkoa; Ebazpena, 2015eko apirilaren 29koa, 7/2012 espedienteaz, Gasteizko autoeskola eta; Ebazpena, 2016ko otsailaren 4koa, 6/2013 espedienteaz, eskolako jantokiena.



udalerrri batekin, Irunekin, duen aldea, Arrasateko prezioa Irunekoa baino % 84,4 garestiagoa baita. Alde hori gehiegizkoa da.

Beste merkatu geografiko batzuekin alderatuta, Arrasateko autoeskoletan ezartzen diren tarifa garestiagoak ez dira justifikatzen autoeskola baten gastuen egitura osatzen duten osagaiengatik, autoeskolaren kokapen geografikoaren arabera alda baitaitezke. Ez dago desberdintasun esanguratsurik pertsonalkostuetan, ibilgailua eskuratzeko kostuetan, erregaiaren kostuetan eta hiri-lurzorua metro koadroko prezioaren kostuan, eta beraz, ez dago Arrasaten alderatu diren beste hirietan baino prezio garestiagoa edukitzeko arrazoirik.

Ez da ikusten, akordioa edo nahita egindako jokabide paraleloa alde batera utzita, tarifen antzekoak izateko beste arrazoirik. Gainera, prezio guztiak bat datoz B motako gidabaimena eskuratzeko prezio osoa osatzen duten atal bakoitzean (teorikoa + matrikula; eskola praktikoak; azterketa praktikoa; eta kudeaketa-gastuak).

Hala bada, akordioa egoteak berarekin dakar prezioak bat etortzea modu naturalean ezin azaldu ahal izatea, egiturari edo merkatuko lehia-baldintzei erreparatuta. Sartzeko hesirik gabeko merkatu lehiakorrean, berezkoa lehiakideak prezioen bidez desberdintzea litzateke, beren merkatu-kuota gehitzeko, eta beraz, prezioak bat etortzearen azalpen onargarri bakarria akordioa egotea da.

5. Antijuridikotasuna

99. Zergati bat ere ez dago autoeskolek Lehia Defendatzeko Legearen 1.1 artikuluan tipifikatutako jokabideak izatea justifikatzeko.

Ez da Lehia Defendatzeko Legearen 4. artikuluan subsumitu daitekeen legebabesik, eta ez da hauteman lege horren 1.1 artikuluan ezarritako debekua aplikatzetik salbuesten duen elementurik.

Hortaz, ondorio bakarria atera dezakegu: jokabide hori, tipikoa ez ezik, ordenamendu juridikoaren aurkakoa ere bada, eta kalteak eragin ditu babestutako ondasun juridikoan, hau da, aztergai den merkatuaren lehiaren babesean eta mantentzean.

6. Arau-haustearen larria.

100. LDLren 62. artikulua hiru motatako arau-hauste dakartza sailkatuta: arinak, astunak eta oso astunak. Artikulu horretako 4. zenbakiaren a) letrak oso astuntzat jotzen ditu honako hauek:

«Kolusiozko jokaerak aurrera eramatea lege honen 1. artikuluan aurreikusitako moduan, baldin eta jokaera horiek elkarri lehia egiten dioten benetako enpresa edo



enpresa potentzialen arteko kartel, akordio, erabaki edo gomendio kolektiboak, hitzartutako praktikak edo nahita paraleloak badira».

Lahia Defendatzeko Legearen 1.1.a) artikuluan jasotako jokabidea arau-hauste oso larritzat jo behar da elkarren arteko lehiakideek gauzatu badute.

Aipatutako jokabidea izan duten autoeskolak merkatu berean lehiatzen dira, Arrasaten B. motako gidabaimena lortzeko irakaskuntzan, hain zuzen.

Horrenbestez, aztertutako arau-haustea oso astun gisa tipifikatu behar da, 62.4.a) artikulua araber.

101. Lehia Defendatzeko Legearen 63.1 artikuluan datorrenez, lege honetan xedatutakoa nahita edo utzikeriagatik urratzen duten eragile ekonomiko, enpresa, enpresen elkarte edo batasun nahiz taldeei zehapen hauek jarriko dizkiete horretarako eskumena duten organoek:

«c) Arau-hauste oso astunen kasuan, araua hautsi duen enpresak isuna jarri zaion ekitaldiaren aurrekoan guztira izan zuen negozio-bolumenaren ehuneko 10era arteko isuna».

VII. INGURUABAR LARRIGARRIAK ETA ARINGARRIAK

102. Lehiaren Euskal Kontseiluak ez du inguruabar larrigarri edo aringarririk ikusten.

VIII. ERANTZUKIZUNA

103. Konstituzio Auzitegiaren eta Auzitegi Gorenaren jurisprudentziarekin bat etorritik —Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak ere jasotzen du 2011ko azaroaren 14ko 761/2011 epaian eta 2012ko otsailaren 6ko 73/2012 epaian—, administrazioaren erantzukizunaren esparruan ez da nahikoa jokabide tipikoa eta antijuridikoa izatea, horrez gain beharrezkoa baita erruduna izatea⁴¹. Erruduntasuna elementu saihestezina da zehapen-eskubidearen aplikazioari buruz ari garenean, eta beharrezkoa da gauzatutako jarduketa-espeditentean sartuta daudenei egozte, bai dolo gisa bai zuhurtasun falta gisa; hau da, subjektuak nahita jardutea edo kontziente izatea —eskatzen zitzaion diligentsia alde batera utzi izanagatik— bere egintzak lehia askeari eraso egin diezaiokeela edo egiten diola.

⁴¹ KAE 76/1990, 1990eko apirilaren 26koa; AGE, 1995eko abenduaren 12koa, 1999ko maiatzaren 14koa, 2002ko martxoaren 4koa, 2002ko abenduaren 19koa, 2005eko martxoaren 18koa eta 2010eko uztailaren 6koa, eta EAEAN, 2011ko azaroaren 14ko 761/2011 epaia eta 2012ko otsailaren 6ko 73/2012 epaia.



Aztertzen ari garen kasuan, lau autoeskolen erantzukizuna B motako gidabaimena eskuratzeko irakaskuntzagatik nahita tarifa berdinak ezartzean oinarritzen da.

104. Lehia Defendatzeko Legearen 1.1 artikulua urratzearen erantzule dira honako pertsona fisiko eta juridikoak:

ROBERTO LARRAD PÉREZ (IFZ 16292438C), izen komertziala Arrasate Autoeskola

JOKIN ITURRIOTZ GASTESI (IFZ 15906454E), izen komertziala Leniz Autoeskola

PEÑAKOBA AUTOESKOLA, S.L. (IFZ B20807814), izen komertziala Peñakoba Autoeskola

ION TELLERIA GARAY (IFZ 15385478L), izen komertziala Telleria Autoeskola

IX. ZEHAPENAK ZEHAZTEA

105. Espediente honetan, egiaztatu egin da Arrasateko autoeskolen merkatuan prezioak finkatzeko akordioa egon dela, udalerriko autoeskola guztiei eraginez eta gutxienez 2013. urtetik gertatzen dela. Horrek LDLren 1. artikulua urratu dutela esan nahi du espedientea ireki zaien lau autoeskoklek.

106. Arau-hauste horren balorazioari dagokionez, LDLren 62.4 a) artikulua xedatzen du hauek direla arau-hauste oso astunak:

«Kolusiozko jokaerak aurrera eramatea lege honen 1. artikuluan aurreikusitako moduan, baldin eta jokaera horiek **elkarri lehia egiten dioten benetako enpresa edo enpresa potentzialen** arteko kartel, akordio, erabaki edo gomendio kolektiboak, hitzartutako praktikak edo nahita paraleloak badira».

107. Halaber, 63.1 artikulua c) apartatuak adierazten du arau-hauste oso astunak isunarekin zigortu ahal izango direla, eta isun hori berau ezarri aurreko ekitaldian enpresa arau-hausleak izandako negozio-bolumen osoaren % 10a artekoa izan ahalko dela; halaber, negozio-bolumena mugatzerik ez balego, 3.c) letrak dio isunaren zenbatekoa 10 milioi eurotik gorakoa izango dela.

108. Auzitegi Gorenak, 2015eko urtarrilaren 29ko epaian (2872/2015 errekurtsioa), % 10aren izaeraz ebatzi zuen: zehapen-bitarte baten gehienekoa den, edo nibelazio-muga edo -atalase bat dela jo beharra dagoen. Auzitegi Gorenaren arabera, isuna zehazteko prozesuak honako premisa hauek bete behar ditu ezinbestean:



«LDLren 63.1 artikuluan aurreikusitako portzentajezko mugak zehapen-bitarte baten gehieneko mailatzat hartu behar dira, non, zehapenak, jokabideen astuntasunaren arabera, bereizi behar diren». Salaren arabera, muga horiek «kasu bakoitzean, diruzko zehapen baten muga dira, eskala baten barruan, zeina gutxieneko baliotik hasita ehuneko korrelatiboan amaitzen den», eta «portzentajezko zifrak dira, eta, dagokion kategoriaren barruan, dentsitate antijuridiko handiena duen jokabide arau-hausleari dagokion zehapenerako zehapen zorrotzena zehazten dute».

Isunaren ehunekoa zer oinarriren gainean kalkulatu behar den, berriz, (% 10 kasu honetan, arau-hauste oso astuna delako), «isuna ezarri aurreko ekitaldian enpresa arau-hausleak izandako negozio-bolumen osoa» aipatzen du LDLren 63.1 artikulua, eta kontzeptu horrekin legegileak, Auzitegi Gorenak adierazten duen moduan, «azpimarratu nahi izan du ehuneko-oinarri gisa erabiltzen duen negozio-zifra ez dela zati batera mugatzen, bolumen haren “osotasun”era baizik. Bestela esanda, “guztizko bolumena” nozioarekin kontzeptua batu egin da, hain zuzen ere, arau-haustea egin duen enpresaren jarduera-adarren araberrako diru-sarrera gordin agregatuen eta desagregatuen arteko bereizketarik ez egiteko». Era horretan baztertu egiten du ehunekoa kalkulatu behar denik jokabidea edo arau-hauslea mugatzen den jarduera-sektoreari dagokion negozio-zifraren gainean.

LDLren 63. artikuluan finkatutako gehieneko ehunekora arte dagoen zehapen-bitartearen barruan, aurretik aipatutako LDLren 64. artikulua arabera mailakatu beharko dira isunak.

Azkenik, epaiaren 9. zuzenbideko oinarriak berriz ere nabarmentzen du disuazioak eta proportzionaltasunak zuzendu behar dutela ezinbestean zehatzeko ahalaren erabilera, eta horrekin batera beharrezko arreta eskaini behar zaiela aurretik zehaztutako mailakatze-irizpideei. Hala bada, adierazten duenez, «jarduera (...) gauzatzearen gainean aurreikusitako administrazio-zehapenak maila behar bezain eragozle batean finkatu behar dira; era horretan, enpresek, erabakiak hartzen dituztenean, arau-hausteen ondorioz lortu nahi dituzten onura ekonomikoak haien errepresioari datzekion kostuak (zehapenak) baino handiagoak izan ez daitezzen». Halaber, zehazten du isunen xede eragozlea, lehia defendatzearen arloan, ezin dela izan kasu zehatz bat kalkulatzeko erreferentzia-puntua, proportzionaltasun-printzipioa ordezkatuta.

109. Gainera, LDLren 64.1 artikuluan xedatuta dago isunen zenbatekoa ezarriko dela irizpide hauek kontuan hartuta, besteak beste:

- a) Arau-haustea eragiten dion merkatuaren neurria eta ezaugarriak.
- b) Erantzulea den edo diren enpresen merkatu-kuota.
- c) Arau-haustearen zenbaterainokoa.
- d) Arau-haustearen iraupena.
- e) Arau-haustea zer-nolako ondorioak izan dituen kontsumitzaile eta erabiltzaileen edo beste operadore ekonomiko batzuen eskubide eta bidezko interesetan.
- f) Arau-haustea dela-eta bidegabeki zer-nolako onurak eskuratu diren.
- g) Erantzulea den enpresa bakoitzaren kasuan, zer-nolako gertakari astungarri edo aringarriak dauden.



1. Balorazio orokorra

110. Kolusiozko jokabideak kaltetutako merkatua, esan bezala, B motako gidabaimena eskuratzeko irakaskuntzarena da. Eraginpeko eremu geografikoa, berriz, Arrasateko udalerria da. Esan beharra dago, merkatu txikia dela, lau autoeskolek jarduten dute bertan eta 2013-2017 aldian B motako gidabaimena gainditu dutenak⁴² 663 izan dira, hots, 34 pertsonak gainditu dute autoeskolako urtean.

111. Arau-hauste bakar eta jarraitu oso larria da, Arrasateko udalerriko autoeskolek egindako akordioan oinarritutakoa. Horri jarraikiz, autoeskolek prezio berbera kobratzen dute B motako gidabaimena eskuratzeko, gidabaimena osatzen duten kontzeptu guztietan: matrikula+teorikoa, eskola praktikoa, azterketa praktikoa eta kudeaketa-gastuak, gutxienez 2013tik 2017ra bitartean. Hau da, gutxienez bost urteko aldian zehar, Arrasateko autoeskolek prezio berbera eskaini dute B gidabaimena eskuratzeko. Halaber, espedientean egiaztatu den bezala, prezio hori garestiagoa da alderatu den beste merkatuetakoa baino: Gipuzkoako beste udalerri batzuetakoa, Arabakoa, Bizkaikoa, EAEkoa eta Estatukoa baino.

B motako gidabaimena eskuratzeko Arrasaten jarduten duten autoeskola guztien arteko akordioa egoteak prezioak finkatzeko, merkatuko lehia aldatzen du *per se*, ezabatu egiten baitu zerbitzua eskaintzerakoan lehiaren faktore nagusia dena: prezioa. Gainera, gertutasuna funtsezko faktorea denez autoeskola aukeratzekoan, ez du ematen bezero horiek itxarondako prezio-aniztasuna dagoen merkatuetara joango direnik, denbora asko galduko bailukete eta joan-etorrietan ere gastu handiak izango bailituzkete. Ondorioz, batetik, bezeroak eskaintza berdina dituzte, eta beste merkatu batzuetakoak baino garestiagoak, eta bestetik, autoeskolek ez dute kalitatea hobetzeko eta berrikuntzarako pizgarririk.

Aurrez aipatu dugun Auzitegi Gorenaren epaia jarraituz, lehen adierazitako faktoreen multzoak –arau-haustearen larritasuna, jokabidearen irismena eta eremu geografikoa, eraginpeko merkatuaren ezaugarriak, jokabidearen ondorioak eta beste inguruabar batzuk– negozioaren bolumen osoaren % 10a arteko eskala arau-haustearen barruan, arau-haustearen balorazio orokorra zehazteko aukera ematen du. Ondorioz, instruktore honek iritziz, arau-hauste honen zehapen-tasa osoa, oro har, % 3an kokatu beharko litzateke, autoeskola bakoitzaren jokabidea kontuan hartuz banaka egin behar diren doikuntzak alde batera utzi gabe.

⁴² DGTren datuak, 2017ko azaroaren 29 arte.



2. Jokabidearen banakako balorazioa.

112. Aldez aurretik adierazi bezala, arau-hauste oso astuna da (LDLren 62.4.a art.), eta isuna ezarri aurreko ekitaldiko negozio-bolumenaren % 10a arteko isunarekin zehatu ahal izango da.

Honako taula honetan erakunde arau-hausleek 2017an izandako guztizko negozio-bolumena jasota dago, hori baita zehapena ezarri aurreko urtea:

ENPRESA	NEGOZIO BOLUMENA, GUZTIRA 2017 (€)
ARRASATE AUTOESKOLA	22.642,95
LENIZ AUTOESKOLA	104.644, 47
PEÑAKOBA AUTOESKOLA	101.140,00
TELLERIA AUTOESKOLA	33.774,58

Enpresek emandako zenbaki horiek kontuan hartuta, aplikatu beharreko zehapen mota LDLren 64.1 artikularen mailakatze-irizpideei jarraikiz zehaztu behar da, Auzitegi Gorenaren aipatutako jurisprudentzian azaldutakoarekin bat etorritz.

113. Kontuan hartu behar da, espediente ireki zaien autoeskola batzuek LENIZ, PEÑAKOBA eta TELLERIA autoeskolek, hainbat gidabaimen eskaintzen dituztela B motako gidabaimenaz gain (jokabideek eragindako merkatua hain zuzen). Bestalde, PEÑAKOBA autoeskolak bi egoitza ditu, Arrasaten eta Oñatin, baina eraginpeko merkatua Arrasatekoa da.

Gainera, arau-haustean parte hartu zuten garaia aldatu egiten da autoeskolaren arabera: bost urte LENIZ, PEÑAKOBA eta TELLERIA autoeskolen kasuan, eta lau urte eta zazpi hilabete ARRASATE autoeskolaren kasuan.

Hurrengo taulan jasota dago autoeskola bakoitzak zer parte-hartze kuota duen espediente honetan jasotako arau-haustea eragindako negozio-bolumen osoan, autoeskolek LEAren eskariz emandako informazioa aintzat hartuta: Jokabide hori izan bitartean inputatutako autoeskolek eragindako merkatuan izan duten negozio-bolumenak erakusten du arau-haustearen ondorioz bakoitzak merkatuan zer-nolako eragina izan duen; horretan enpresa bakoitzarentzat egiaztatutako jokabidearen iraupenak zein horretan izandako parte-hartze mailak eragiten dute. Eta, horregatik, erreferentzia-irizpide egokia da enpresa bakoitzari ezarri beharreko zehapena zehazteko (LDLren 64.1 artikuluko a eta d letrak).

ENPRESA	PARTAIDETZA KUOTA
---------	-------------------



	JOKABIDEAM %
ARRASATE AUTOESKOLA	% 25,48
LENIZ AUTOESKOLA	% 45,01
PEÑAKOBA AUTOESKOLA	% 11,81
TELLERIA AUTOESKOLA	% 17,70

114. Espedientearen instrukzioan zehar ez da ikusi zehapena kalkulatzeko aplikatu daitezkeen inguruabar astungarri edo aringarriak.

3. Enpresa arau-hausleei ezarri beharreko zehapen-tasa.

115. Aurretik esandakoari jarraikiz, LEKren iritziz honako taula honetan zehaztutako zehapen-tasa ezarri behar zaie autoeskolei:

ENPRESA	NEGOZIO BOLUMENA, GUZTIRA 2017 (€)	ZEHAPEN TASA (%)
ARRASATE AUTOESKOLA	22.642,95	3,50
LENIZ AUTOESKOLA	104.644,47	3,75
PEÑAKOBA AUTOESKOLA	101.140,00	3,10
TELLERIA AUTOESKOLA	33.774,58	3,25

116. Kolusiozko jokabidearen ezaugarrien eta autoeskola bakoitzak arau-haustean izandako parte-hartzearen neurrikoa izateko moduan kalkulatu da zehapen-tasa hori. Dena den, kontuan hartu behar da autoeskola batzuek B gidabaimenaz gain beste gidabaimen batzuk ere eskaintzen dituztela edo Arrasatekoaz gain beste egoitza batzuk dituztela, eta beraz, enpresa arau-hausleei ezarriko zaien zehapenari proportzionaltasun-doikuntzaren azterketa egin zaio, erakunde arau-hausleak zehaztasuneko balizkoetan jokabidearekin lortu ahal izan duen legez kontrako mozkinaren zenbatespena kontuan hartuta (horixe har daiteke legez kontrako mozkin potentzialtzat). Hala, zehapen guztiak proportzionaltasun-muga gisa zenbatetsitako zenbatekoaren azpitik daudela egiaztatu da, eta beraz, ez da doikuntzarik egin behar⁴³.

4. Zehapenak

117. Hurrengo taulan arau-hausleei ezarriko zaizkien zehapenak agertzen dira:

⁴³ Alderdi horiek hainbat parametro ekonomikori buruzkoak dira, hala nola enpresek lehiaren baldintzetan duten mozkin-tartea, arau-haustearen ondoriozko prezioen igoera eta dena delako merkatuko eskariaren prezio-elastikotasuna. Ahal izan denean, kontuan hartutako alderdi horiek enpresa arau-hausleek beraiek emandako datuetan oinarritzen dira, edota dena delako merkatuari buruzko datu-base publikoetan (Espainiako Bankuaren sozietate ez-finantzarioen ratio sektorialak, adibidez). Datu zehatzik ez dagoenean, baina, literatura ekonomikoaren zenbatespenetan oinarritzen dira. Parametro horien gaineko kasuak oso zuhurrak dira, ikuspegi ekonomikotik arrazoizkoak izan behar baitira beti ezinbestean, eta zalantza izanez gero, enpresentzako balio onuragarrienak hartzen dira beti.



ENPRESA	ZEHAPENA (€)
ARRASATE AUTOESKOLA	792,50
LENIZ AUTOESKOLA	3.924,17
PEÑAKOBA AUTOESKOLA	3.135,34
TELLERIA AUTOESKOLA	1.097,67

X. LEHIAREN EUSKAL KONTSEILUAREN EBAZPENA

118. Aurreko guztia aintzat hartuta Lehiaren Euskal Kontseiluak honako hau ebatzi du:

a) Arau-haustea egon dela ebaztea, Lehia Defendatzeko Legearen 1.1 artikuluan debekatzen diren jokabideak burutu baitira. Izan ere, autoeskola guztiek bat zetozen tarifak aplikatu dituzte, zenbateko osoan, zein B motako gidabaimena eskuratzeko ikaskuntza osatzen duten kontzeptu banakatuetan, Arrasateko udalerrian 2013. urtetik 2017. urtera bitartean TELLERIA, LENIZ eta PEÑAKOBA autoeskolek eta 2013ko ekainetik 2017. urtera bitartean ARRASATE autoeskolak.

b) TELLERIA, LENIZ, PEÑAKOBA eta ARRASATE autoeskolek arau-hauste oso astuna burutu dutela ebaztea, 62.4.a) artikulua kontuan hartuz.

c) Arau-hauste horren egile eta arduradun honako hauek izendatzea:

ROBERTO LARRAD PÉREZ (IFZ 16292438C), izen komertziala Arrasate Autoeskola

JOKIN ITURRIOTZ GASTESI (IFZ 15906454E), izen komertziala Leniz Autoeskola

PEÑAKOBA AUTOESKOLA, S.L. (IFZ B20807814), izen komertziala Peñakoba Autoeskola

ION TELLERIA GARAY (IFZ 15385478L), izen komertziala Telleria Autoeskola

d) Ez dagoela inguruabar larrigarririk edo aringarririk kontuan hartzea.

e) Honako zehapen hauek jartzea:

ROBERTO LARRAD PÉREZ 792,50 euro

JOKIN ITURRIOTZ GASTESI 3.924,17 euro

PEÑAKOBA AUTOESKOLA SL 3.135,34 euro

ION TELLERIA GARAY 1.097,67 euro

f) Zehapena ezarritako autoeskolei agintzea jokabide arau-hauslea eta helburu bereko jokabideak edo eragin bera dakartenak bertan behera utz ditzatela.

j) Zehapena ezarritako autoeskolei agintzea Lehiaren Euskal Agintaritzako lerketa Zuzendaritzaren aurrean justifikatu dezatela ezarritako isunen gauzapena eta ebazpena osorik bete dezatela hilabeteko epean, gauzatzen den unetik zenbatzen hasita.



k) Lehiaren Euskal Agintaritzako Ikerketa Zuzendaritzari eskatzea ebazpen hau osorik betetzen dela zaindu dezala.

Jakinaz bekie ebazpen hau Lehiaren Euskal Agintaritzako Ikerketa Zuzendaritzari, MLBNko Lehiaren Zuzendaritzari eta interesdun guztiei, eta adierazi bekie ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen duela eta administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipin dezaketela EAEko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, jakinarazpena egiten den egunetik hasi eta bi hilabeteko epean.